BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA




## KIROLAK: MANKOMUNITATEA ETA KIROLGI FUNDAZIOA LANKIDETZAN /11


# Goienk

EGUBAKOITZA • 2002ko martxoaren 8a • III. urtea • 56. zenbakia • DOAN B




**Goienka2a**
Oskorri, 'Vizcayatik Bizkaiara', Bergarako pilotalekuan

**DEBAGOIENA**
Lehendakariak Urrezko Q saria eman dio Fagor Elektratresnak-i /4

**VIRGINIA IMAZ**
*"Egun guztiak dira Emakumearen edo Gosearen Eguna"* /8-9



XABI URZELAI

## Kirol Medikuntza Zerbitzua, denondako

Atzo (eguena) iluntzean inauguratu zuten Arrasateko Musakolako kiroldegian Kirol Medikuntza Zerbitzua. Zerbitzu berriak kalitatea eta erosotasun handiagoa eskaintzea du helburu. Zerbitzua ez da goi mailako edo federatu mailako kirolariendako bakarrik, baizik eta debagoiendar guztiendako. Inaugurazio ekitaldian hainbat debagoiendar eta goi mailako kirolari elkartu ziren: Joseba Beloki, Igor González de Galdeano, Joane Somarriba...

MARTXOAK 8: EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

# Lehengo eta gaur egungo emakumeak

Emakumearen Nazioarteko Egunean, emakumeari aukera berdintasuna lortzeko geratzen zaizkion erronkak gogora ekartzen dizkigute.

Emakume izatea zer den eta horrek zer dakarren, hori ere berbagai izaten da egun honetan.

Sarritan, baina, emakumeaz modu abstraktuan egiten dugu berba, izen-deiturarik eta aurpegirik gabeko emakumeaz. Oraingo honetan, XX. mende hasieratik gaur egunera bitarteko emakume horren eredu bat bilatzen ahalegindu da GOIENKARIA.

Debagoieneko lau herritan bizi dira Paskuala Lanz, Sabina Igartua, Elena Odriozola eta Maitane Muñoz. Bakoitza garai baten jaioa da, eta emakume izateak zer esan nahi duen eta beste hainbat gauza ere kontatu dizkigute ibarreko lau emakumeok. /2-3

ANTZUOLA

### Hainbat gasturen igoera dela-eta, ika-mikak Udalean

Sagasti, Olaran eta frontoi inguruko lanetan izandako kostu igoerak direla-eta sortu dira alderdi politikoen arteko ika-mika horiek Antzuolako Udalean. Gastu igoeren zergatiak azaltzeko batzar informatiboa egingo dute bihar, zapatua, 11:30ean, udaletxeko aretoan, Batasuna eta Zutikeko udal ordezkariek. /5

## Zubillagako saihesbidea egiteko proiektua onartu du Diputazioak

Oraingo astean onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Sailak Zubillagako saihesbidea egiteko proiektua. Saihesbide horrek 4,5 milioi euroko aurrekontua izango du (762 milioi pezeta). 1,8 kilometro luze izango da, eta lanak urtebetean egitea aurrez ikusi dute. Errepideak errei bi izango ditu eta 3,50 metro zabal izango da. Bestalde, saihesbidea egiteko hainbat lur desjabetu egingo ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. /4

ARAMAIO

### Hiru herritar ariko dira Arabako Bertso Txapelketan

Manex Agirre, Lierni Altuna eta Andere Arriolabengoa aramaioarrek aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketako kanporaketetan parte hartuko dute hirugarren aldiz. Hala, Liernik eta Anderek bihar, zapatua, izango dute kanporaketa, Laudion. /5






HERRIZ HERRI/4-5 • IRITZIA/6-7 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Emakumeak, le

## Emakume Langilearen Eguna dugu gaur, martxoak 8. Asko aldatu dira gauzak XX. mende hasieratik hona? Guk lau testigantza jaso ditugu.

LEIRE KORTABARRIA

Emakumearen Nazioarteko Egunean, emakumeari aukera berdintasuna lortzeko geratzen zaizkion erronkak gogora ekartzen dizkigute. Emakume izatea zer den eta horrek zer dakarren, hori ere berbagai izaten da egun honetan. Sarritan, baina, *emakumea*-z berba egiten dugu, modu abstraktuan, izen-deiturarik eta aurpegirik gabeko emakumeaz. Oraingo honetan, XX. mende hasieratik gaur egunera bitarteko emakume horren eredu bat bilatzen saiatu da GOIENKARIA.

**LAU EMAKUME, IBILBIDE BAKARRA**

Debagoieneko lau herritan bizi dira Paskuala Lanz, Sabina Igartua, Elena Odriozola eta Maitane Muñoz. Bakoitza garai baten jaioa da, eta emakume izateak zer esan nahi izan duen kontatu digu bakoitzak, bizitzako hainbat arlotan euren eguneroko esperientziaren berri guri emanaz: familia arteko harremanak, aisialdia, etxeko ardurak, etxetik kanpoko lana, hezkuntza…

Euren kontakizunei esker, 1912tik gaur egunera bitartean, gure ibar honetan emakumeak egin duen ibilbideari jarraitu ahal izan diogu. Batzuek uste dute gauza batzuk asko aldatu direla emakumearendako, eta hobera egin dutela, gainera; beste batzuk ez dira hain baikorrak, eta Emakumearen Eguna beste urte askotan egin beharko dela iragartzen dute.





Paskuala (89 urte), Sabina (71 urte), Elena (38 urte) eta Maitane (17 urte) debagoiendarren ikuspegiei esker, emakumeak lau belaunaldita

| | Lau emakumeak | Familia | Lagunak, bikotea... | Ikasketak | Etxeko ardurak |
|---|---|---|---|---|---|
|  | **PASKUALA LANZ** **Nafarroan jaio zen, Lakuntzan, baina Oñatin bizi izan da ezkondu ondorengo ia bizi guztia. Txikitan geratu zen umezurtz. Apirilean, 90 urte beteko ditu Paskualak.** | Aita-amak gazterik hil zitzaizkion, baina eurekiko harremana ona zela dio Paskualak. Osaba-izebekin bizi izatera joan zen gero, eta ondo konpontzen ziren. | Tolosako lehengusuekin irteten zen; beste mutilekin ez zen irteten. Lanean ezagutu zuen gero senarra izango zena, eta 26 urterekin ezkondu zen harekin. | Mojekin egin zituen oinarrizko ikasketak: “Gauza handirik ezin genuen ikasi”, dio. Ikasketak utzi behar izan zituen, eta 19 urterekin Donostiara joan zen. | Etxekoandre izandakoa da Paskuala ezkonduz geroztik; beste aukerarik ez zegoen ezkondutako emakumeendako. Etxeko lanak egin eta umeak zaindu izan ditu. |
|  | **SABINA IGARTUA** **Oñatin jaio zen orain dela 71 urte, baina Aretxabaletan bizi izan da ezkondu ondoren. Etxetik kanpo lan egin izan du ile apaintzaile moduan, erretiratu arte.** | Sabinaren ustez, lehen, orain baino begirune handiagoz ikusten zituzten gurasoak semealabek: “Errespetua nien, baina ondo konpontzen nintzen haiekin”. | Domeketan irten, dantzaldietara joan eta plazan paseatzen zuten Sabinaren adineko neska-mutilek; horrela ezagutzen zuten elkar, eta adiskidantza hasi. | Baserrian bizi izan zen Sabina, eta auzoan ikasi zuen 11 urtera arte. Sabinak dioen moduan, irakurtzen, idazten, batuketak egiten… justu-justu ikasten zituzten. | Ezkondu ondoren, etxean geratzen zen emakumea. Etxeko ardura guztia emakumearena zen; gizona ez zen inplikatzen. Orain, aldaketa handia ikusi du Sabinak. |
|  | **ELENA ODRIOZOLA** **Bergararra da eta 38 urte ditu. Irakaslea da. Ahizpa eta anaia bana ditu. Bere lanbidearengatik eta ama den aldetik, ordutik honako hezkuntzaren bilakaera ondo sumatu ahal izan du.** | Bere kasuan gertatu ez den arren, Elenak dio bere adineko hainbat familiatan oraindik neskei eta mutilei hezkuntza desberdina ematen zietela. | Elenaren belaunaldian, bikote gehienek oraindik ezkontzea aukeratzen zuten; ezkondu bako elkarbizitza oso arraroa zen. “Askotan, gurasoengatik egiten zen”, diosku. | Elenak ezagutzen dituen bere adineko emakume gehienek unibertsitateko ikasketak egiteko aukera izan dute, eta hala egin dute; gehienek, lan munduari begira. | Orokorrean, etxeko lanak emakumeak egiten dituela uste du Elenak. Lana egiteaz gain, horren ardura ere emakumeak eraman behar izaten duela dio. |
|  | **MAITANE MUÑOZ** **Mondragoetarra da eta 18 urte beteko ditu datorren irailean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken ikasturtea egiten dihardu, eta unibertsitatera joateko asmoa du.** | Maitanek uste du bere belaunaldiak gurasoekin konfiantza duela, baina semeei eta alabei tratu desberdina ematen zaiela dio, batez ere etxeko ardurei dagokienez. | Uste du bere adinekoen artean ezkondu barik elkarrekin bizi izatea izango dela aukera zabalduena. “Erlijioak ez du hainbeste indarrik; horrek ere eragina du”. | Maitaneren ustez, neska gehienek letretako unibertsitate ikasketak egiten dituzte. Bere iritziz, hainbat lanbidek “mutilenak” izaten jarraituko dute. | Maitanek dio bikotekideek erdi eta erdi egin beharko lituzketela etxeko lanak, baina bere adineko mutilengan ez du horrelako jarrerarik ikusten. |

# ehen eta orain





MIRARI ALTUBE / LEIRE KORTABARRIA

n zehar izan dituen bizimoduaren eta aldaketen testigantza jaso ahal izan du **GOIENKARIAk.**

## *Emakumea eta lana: 2000. urteko datu esanguratsu batzuk*

### ETXEKO ETA ETXETIK KANPOKO LAN EGOERA
### Desberdintasunak jarraitu egiten du

*Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak* izeneko txostenean, Emakundek honako ondorioak ateratzen ditu lan arloaren gainean: "Gizonezkoen eta emakumeen arteko desberdintasun larriak gertatzen diren arlo garrantzitsuenetariko bat izaten jarraitzen du lanak. Gaur egun, aldaketa handiak ikusten ari gara, emakumeak lan merkatura gero eta gehiago sartzen dabiltzalako, batik bat. Hala ere, desberdintasunek hor jarraitzen dute".

Honako datuak eskaintzen ditu Emakundek ondorio horien oinarri moduan. Hona hemen horietako batzuk.

Adibidez, egunero, emakumeek gizonezkoek baino bi ordu eta 39 minutu gehiago ematen dute etxeko lanak egiten eta beste batzuk zaintzen; etxetik kanpoko lanean eta prestakuntzan, ordu bat eta 50 minutu gutxiago. "Ondorioz, emakumeek gizonezkoek baino lan handiagoa egiten dute, eta horregatik, aisialdirako eta harremanerako asti laburragoa dute", dio Emakundek. EAEn etxeko lan ekoizpenaren %74 emakumeek egiten dute, eta %26, gizonezkoek.

Bestalde, 2000. urtean etxean egindako lan guztia Barne Produktu Gordina zenbatzeko kontuan hartu izan balitz, 13.200 milioi eurotik gora izango litzateke (2.200.000 milioi pezetatik gora), hau da, BPGren %40.

Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeen %84,4k zerbitzu arloan egiten dute, eta sektore horretako hainbat lanetan, emakumeek gizonezkoek baino %44,5 gutxiago irabazten dute lan berbera egiteagatik. Emakumeen ia %20 langabea da, hau da, zazpi langabetik lau emakumeak dira; gizonen kasuan, %9,5. Bestalde, kontratu barik lan egiten duten zazpi lagunetik sei emakumeak dira.

### HEZKUNTZA
### Ikasketa gutxidun emakume gehiago

Euskal Autonomia Erkidegoan, hezkuntza maila baxuetan (alfabetatu bakoak, ikasketa bakoak eta oinarrizko hezkuntza egin dutenak), gizonezko baino emakume gehiago dago. Bestalde, emakume gehien dituzten ikasketak honakoak dira: etxearekin zerikusia dutenak (99,4% emakumeak dira), ile apainketa eta estetika (95,7%) eta osasuna (91,6%). Irakasle gehienak emakumeak dira, baina ikasketa maila igotzen doan neurrian, emakume irakasleak gutxiago dira: ume hezkuntzan 93,9% dira emakumeak; erdi hezkuntzan, 56,4%; unibertsitatean, 34,4%.

### ERAKUNDE PUBLIKOAK
### Ardura handiko postuetan, %15,5

Emakume baino gizonezko gehiago da elkarteren bateko kide, batik bat, alderdi politikoen, kirol elkarteen eta sindikatuen kasuan. Emakunderen esanetan, azken urteotan geroago eta emakume gehiagok lortu du posturen bat erakunde publikoetan, baina desoreka handia dago oraindik ere. 1999an, Eusko Jaurlaritzako ardura gehiengoko karguen %15,5 bakarrik ziren emakumezkoak; Legebiltzarrean, iaz, %34,7 izan ziren; Batzar Orokorretan, 1999an, %26,5. Bestalde, geroago eta emakume zinegotzi gehiago dagoen arren, 1999an, EAEn, alkateen %12 baino ez ziren emakumeak.

### GIZA EGOERA
### Txirotasuna eta tratu txarrak

Eustat-en eta Espainiako Estatistika Erakundearen arabera, emakumeek txirotasun arrisku handiagoa dute. Bakarrik bizi den emakumeak du bizi baldintza txarrak jasateko arrisku handiena: 2000n, multzo horretako %88,5 bizi ziren txirotasunean edo bizi baldintza egokien azpitik. Biolentziari dagokionez, 2000n, tratu txarren 1.039 salaketa izan ziren EAEn. Kasu guztietatik %57 tratu txar fisikoak ziren; gainerakoek, horrez gain, tratu txar psikologikoa jasan zuten. %90ean erasotzailea senarra edo bikotekidea zen.

| Kanpoan lan egin | Aisialdia | Itxura, moda... | Politika | Esaldia |
|---|---|---|---|---|
| Lehengusina Ameriketara joan zen, eta Donostian zuen lana Paskualari eskaini zion. Baina ezkondu zenean, lan hura utzi eta etxean geratu zen Paskuala. | Kalean ibiltzen zen Paskuala lehengusulehengusinekin, Tolosan. Dantzaldiak ere izaten ziren, plazan, eta hantxe ibiltzen ziren. Bestelako aukerarik ez zegoen. | Paskualak gogoratzen du abarketekin irteten zirela leku guztietara. "Oraingo luxurik ez geneukan guk", diosku. Herriko jaietan bakarrik apaintzen ziren gehiago. | Emakumeak erakunde publikoetan egin dezakeen lanaren gainean ez du aparteko iritzirik Paskualak. Bere ustez, emakumeon lan garrantzitsuena etxekoa da. | "Orain, emakume askok etxetik kanpo egiten du lan, baina umeak, zer? Umezainarekin, batarekin, bestearekin… geratzen dira. Hori ez dut ondo ikusten". |
| Orduan hasi ziren lantegietan lan egiten, baina ezkontzerakoan, utzi egiten zuten. Sabinak ile apaindegia izan zuen, hortaz, salbuespenetariko bat izan zen. | Gaztetan, egiteko asko zegoela gogoratzen du Sabinak; aisialdirako denbora laburra geratzen zitzaien. Kalean paseoan ibili edo dantzaldietara joaten ziren. | Jarraipen txikia egiten zioten modari: "Ez genuen aukera handirik", dio Sabinak. "Beroki berriren bat-edo noizbehinka erosten genuen, bai". | Emakumeak ez zuen erakunde publikoetan lan egiteko inongo aukerarik. Emakumea orduan hasi zen etxetik kanpo lan egiten, baina ez politikan. | "Nik neure alabarendako gura nuena zen prestakuntza bat izan zezan, bere buruaren jabe egiteko aukera izan zezan… Eta pozik nago, bai, emaitzarekin". |
| Elenaren adineko gehienek goi ikasketak egin eta etxetik kanpo lan egiten dute. Horrek karga handiegia dakarrela dio, etxeko lanak ere egiten dituztelako. | Gauez irteteko, irteerak egiteko-eta, mutilek askatasun handiagoa zuten. Horrez gain, etxera itzultzeko orduak zorrotzagoak izan ohi ziren neskendako. | Moda jarraitzeko aukera handiagoa zuten, eta hor ere "denetarik" zegoela diosku Elenak: batzuek asko jarraitzen zuten, baina gehienek, neurri normal baten baino ez. | Gero eta emakume gehiago dago politikan: "Baina batzuetan, emakume kopuru jakin bat izan behar delako bakarrik ematen diete postua", diosku Elenak. | "Gaur egun, bai neskak bai eta mutilak ere ohituta daude etxeko lanak eginda ikustera, eta ez dute ardura hori hartzen; gurasoen errua ere bada, akaso". |
| Emakumeok lan esparruan parte hartzen jarraitu behar duela uste du, baina hori karga bihur daitekeela dio, baldin eta etxeko ardurak ez badira banatzen. | Askatasun "larregi" ikusten du hainbat arlotan: adibidez, "orain, asko eta asko 13 urterekin hasten dira drogak edo alkohola hartzen. Ez da batere normala". | Emakumeongan presio handia dagoela uste du Maitanek, eta estereotipo kaltegarri asko ikusten ditu. "Lehen, ez zitzaion argaltasunari hainbeste erreparatzen", dio. | Ondo ikusten du politikan emakume gehiago izatea, baina astiro doan prozesu bat dela uste du: "Akaso guk ez dugu ikusiko emakume bat lehendakari postuan". | "Berdintasuna utopia da. Adibidez, beti izango dira *neskendako* eta *mutilendako* lanak. Nire alabarendako berdintasuna gurako nuke, baina beti izango da sexismoa". |



Lehendakariak intsigniak banatu zituen Fagor Elektrotresnetako langileen artean.

# Fagor Elektratresnak enpresari Urrezko Q eman zion lehendakariak

*Zazpi enpresek dute sari hori, tartean Coperecik eta Euskadiko Kutxak*

ENEKO AZKARATE

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria Debagoienera hurreratu zen eguaztenean. Arrasaten izan zen, Fagor Elektratresnak enpresak Garagartzan duen lantegian, hain justu ere. Eta, zertara etorri zen?

Bada, Euskalit Fundazioak banatzen duen Urrezko Q saria Fagorko langile eta buruei ematera. Fagor Elektratresnak enpresako Egosketa negozioari eman diote, oraingoan, Urrezko Q saria, bereziki, kudeaketa arloan gauzak ondo egin izanagatik.

Lehendakariarekin batera, Garagartzako lantegian elkartu ziren Fagor Elektratresnak enpresako buruak eta langileak eta Arrasateko alkate Xabier Zubizarreta, besteak beste. Ekitaldiaren ostean, Uarkape pilotalekuan elkartu ziren Fagor Elektrotresnak enpresakoak, eta bazkari ederra egin zuten.

**ERKIDEGOAN, ZAZPI ENPRESAK DUTE**

Urrezko Q kalitate ziurtagiria duten enpresek bikoiztu egin dituzte salmentak. Orain arte, zazpi enpresak jaso dute kalitateko bereizgarri hori eta salmentak %198 igo dituzte, Euskalit Fundaziokoen esanetan. Irizar, ITP, ASLE, Copreci, Euskadiko Kutxa, Gasnalsa eta Fagor Elektratresnak enpresek jaso dute sari hori . Euskalit Fundazioaren helburua, baina, 2004. urterako 25era heltzea da.

Zilarrezko Q sariak ere badaude. Horiei dagokienez, gaur egun 25 enpresa dira, baina bi urte barru 90 izatera heltzea izango da erronka.

Euskadiko enpresak Europarantz begira dezaten ahaleginak ere egin nahi ditu Euskalit Fundazioak. Urrezko Q saria lortu duten enpresak Europa mailako EFQM Kudeaketako Bikainenei ematen zaien sarira aurkez daitezen gura dute.

# Debagoieneko baserri ingurua pizteko plana aurkeztu dute Leintz Gatzagan

E.A.

Debagoieneko Landa Garapenerako Programa aurkeztu zuten joan den eguenean Leintz Gatzagako udaletxean. Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkarteak eta Mendikoik bultzatu dute programa hori. Helburu nagusia da ibarreko baserri ingurunea piztea. Horretarako, baserriaren eta baserritarren beharrak aztertuko dituzte. Bultzatzaileen ustez, denok erabili eta disfrutatzen dugun espazioa da baserria eta, horregatik, denon ardura da ingurune hori zaintzea.

Programa hori Mendikoiren gidaritzapean egingo dute, baina eskualdeko eragile ekonomikoekin, sozialekin eta politikoekin lankidetzan. Horrela, nekazaritzarena ez ezik, ingurumen, lurralde-antolamendu, osasun, kultura eta beste sektoreen gogoeta jaso nahi dute, betiere nekazaritza ikuspegitik eta baserri inguruneari lotuta. Programaren aurkezpen ekitaldian Jaurlaritzako eta Diputazioko ordezkariak izan ziren.

## BAILARAN LABUR

### Euskal Hezkuntza Sistema Nazionalaren alde, greba egin dute hainbat ikastetxetan

Debagoieneko hainbat ikastetxek greba egin zuten eguaztenean, Espainiako gobernuaren Hezkuntza Lege berrien aurka eta Euskal Hezkuntza Sistema Nazionalaren alde. Deia Ikasle Abertzaleak taldeak egin zuen. Arrasateko San Viartorren eta Arrasate-Aretxabaleta Institutuan Batxilergoko ikasleak irten ziren kalera. MUn, Eskola politeknikoan eta Eteon egin zuten greba. /E.A.

### Zubillagako saihesbidea egiteko proiektua onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak

Zubillaga auzoko saihesbidea egiteko proiektuak 4,5 milioi euroko aurrekontua izango du (749 milioi pezeta). 1,8 kilometro luze izango da eta lanak urtebetean egitea aurrez ikusi dute. Santxolopetegiko industriagunetik Osiñurdiraino luzatuko da saihesbidea. Errepideak bi errei izango ditu eta 3,50 metro zabal izango da. Gaur egun, 7.500 ibilgailu igarotzen dira handik. /E.A.

### Debagoieneko Mankomunitateak 920 milioi euroko aurrekontua onartu du

Oraingo eguaztenean onartu zituzten Mankomunitateko aurrekontuak. 920 milioi euro izango ditu Mankomunitateak aurten. Atzerapenarekin onartu dituzte aurrekontuok. Izan ere, oraingo aste arte ez dira ados jarri EAJ-EA eta Batasuna. Azken momentu arte aurrekontuen berri izan ez izana salatu du Batasunak. /E.A.



### Elkarte berria sortu du Arizmendik

Debagoieneko ikastetxe batek, Arizmendi Ikastolak, harremanak sendotu ditu Lapurdiko INSUP erakundearekin. Hain justu, lankidetza hitzarmena sinatu berri dute bi erakundeok. Horren emaitza da ARINSUP elkartea, Interes Ekonomikoko Europako Elkartea. INSUP Akitaniako prestakuntza-erakundea da. 1980az geroztik, gizarteratze arloan egiten du lan, lanbide-kualifikazio eta gaikuntzaren eremuetan. Orain, INSUPek eta Arizmedik ARISNSUP izeneko elkartea sortu dute. Elkarte horren helburuetako bat da interkooperazioa eta informazio zein dokumentazio sistemen garapena bultzatzea. /E.A.

**Oi–LVR**
*Atseden Etxea*
**Deba** (Gipuzkoa)
Tel.: 943 58 30 16

**Zure ASTE SANTUKO OPORRAK gozatu eta bizi izan nahi badituzu, zatoz!**

- **Laztanen tailerra:** masaje sentsitiboari esker, gune eta momentu atsegingarriak sortzen ditugu. Gure helburua da norberaren oztopoak ezabatu eta berezkotasuna ateratzea.
- **Naturaz gozatzeko irteerak**
- **Elikadura garbigarria eta energetikoa**

Koordinatzailea: Garbiñe Aranguren (Psikologo humanista).



*Torrevieja*
**Obra berriak**

- Apartamentuak 73.624 €-tik aurrera (12.250.000 Pta)
- Bungalowak partzelarekin 93.157 €-tik aurrera (15.500.000 Pta)
- Txaletak 127.750 €-tik aurrera (21.255.000 Pta)

**Bigarren eskuko aukera zabala**

**IZARRAITZ INMOBILIARIA**

**HIPER EROSKI ZENTROA**
Tel./Faxa : 943 79 98 60
mondragon@izarraitz.com
ARRASATE

ARAMAIO

## Hiru aramaioar, Arabako Bertsolari Txapelketako kanporaketetan

Manex Agirre, Lierni Altuna eta Andere Arriolabengoa aramaioarrek aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketako kanporaketetan parte hartuko dute hirugarren aldiz.

Lierni Altunak eta Andere Arriolabengoak bihar, zapatua, dute kanporaketa. Laudion izango da, 19:00etatik aurrera, eta lau lagunen kontra arituko dira, zeinek puntu gehiago lortu. Manex Agirrek, berriz, gauza bera egin beharko du martxoaren 23an Lapuebla de Labarcan, Errioxan, bost lagunen kontra. /UBANE MADERA

ANTZUOLA

## Gastuen igoerak direla-eta, ika-mikak sortu dira Udalean

Sagasti, Olaran eta frontoi inguruko lanetan izandako kostu igoerak direla-eta sortu dira ika-mikok.

Aurreko astean, horren inguruko idatzi bat banatu zuen herriko etxe guztietan EAJk. Idatzi horretan, "Udaleko arduradun nagusien kudeaketa txarra" izan dela eta "ardura barik" jokatu dutela salatu zuen. Batasuna eta Zutik alderdiek beste idatzi batekin erantzun dute, eta gastu igoeren zergatiak azaltzeko batzar informatiboa egingo dute bihar, zapatua, 11:30ean, udaletxeko aretoan. /AINTZANE IRIZAR

ELGETA

## Debagoieneko abeltzainek Batzar Orokorra izango dute domekan

Debagoieneko 537 abeltzainek hitzordua dute domeka goizean Elgetako udaletxean. Izan ere, Debagoieneko abeltzain guztiak batzen dituen Degabel elkartearen Batzar Orokorreko lehenengo deialdia 11:30ean izango da.

Ibarreko abeltzainek behar duten albaitaritza zerbitzua koordinatzeaz arduratzen da Deaabel. Batzarrean, iaz egindakoak aztertu eta aurtengo aurreikuspenak azalduko dituzte. Gero, elkarteko ordezkari berriak aukeratuko dituzte. /OXEL EROSTARBE



IKER BARANDIARAN

ARRASATE

## BBVA banketxean bonba bat zegoela esan zuen abisu batek eta butano gas isurketa posible batek kaosa sortu zuten herriaren erdialdean eguazten goizean

Eguazten goiza erabat nahaspilatsua izan zen Mondragoen. Batetik, 09:00etan, SOS Deietan bonba abisua jaso zuten. Horren arabera, 10:00etan, bonba batek eztanda egingo zuen Garibai etorbideko BBVA banketxean. Berehala, ertzainek eta udaltzainek ingurua itxi, langileak banketxetik atera eta miaketa lanetan hasi ziren. Ordubete geroago, 10:00etan, ez zen eztandarik izan, ez baitzuten lehergailurik aurkitu. Baina inguruak itxita segitu zuen beste ordubetez. Izan ere, esandako guztia pasatzen ari zela, butano gas usain handia zabaldu zen. Udaltzaingoak esandakoaren arabera, inguruko 200 metroan zegoen usaina. Ondorioz, suhiltzaileak eta Natur Gaseko teknikariak ere etorri ziren Arrasatera. Zorionez, azkenean ez zen ezer gertatu. /UBANE MADERA

OÑATI

# Udal aurrekontuak aho batez onartu dituzte, 14,5 milioi euro guztira

Joan den asteko osoko bilkuran onartu zituzten 2002ko aurrekontuak: 14.535.894 euro guztira.

Pozik azaldu ziren alderdi guztiak, aurrekontuetan adostasunera iritsi zirelako. Baina baita kezkati ere, Udalaren zorpetze maila altuagatik: %18,5, hain zuzen ere. Hala ere, maila hori jaitsiz doala azaldu zuen Angel Iturbe alkateak.

Batasunako ordezkaria, Karmelo Arregi, ados agertu zen aurrekontuekin. Aurrez ikusi diren lan eta proiektuak egin beharrekoak direla adierazi zuen. Kritika bakarra egin zuen: Natur Eskolarekiko Udalaren jarrera. Karmeloren esanetan, eskolarekiko dituen asmoak lehenbailehen definitu beharko lituzke Udalak. Gainerako alderdietako ordezkariek ondo hartu zuten Arregiren kritika, eta, ildo horretan, erronka horri heldu beharko diotela adierazi zuen EAko Iñaki Galdosek.

**BATZORDEZ BATZORDE**

Ohi bezala, Hirigintza batzordeak dauka aurrekontu handiena: 3.406.888 euro. Enplegu eta Pertsonal Batzordeak 2.385.964 euroko aurrekontua izango du. Idazkaritza eta Hazienda batzordea dugu ondoren, 2.125.425 eurorekin. Aipatzekoa da Kirol eta Kultura Batzordeek izan duten igoera, kiroldegiko eta kultura etxeko lanak direla-eta: lehenak 752.553 euroko aurrekontua izango du; Kultura batzordeak, aldiz, 1.522.555 euroko aurrekontua. /AINTZANE IRIZAR

**Inbertsio nagusiak**

| ZERTARAKO | ZENBAT |
|---|---|
| Kultur etxea | 805.000 € |
| Saneamendua | 301.921 € |
| Gaztelekua | 240.405 € |
| Kiroldegia | 150.252 € |
| Zubill. ur hodit. | 132.232 € |
| Jubilatuen etxea | 70.000 € |
| Gainerakoak | 1.340.488 € |
| **GUZTIRA** | **3.040.298 €** |

BERGARA

# Gizarte Zerbitzuen gaineko hitzarmena Udalak eta Diputazioak

Hitzarmenaren testua asteleheneko osoko bilkuran onartu zuten, EAJ-EAren eta PSE-EEren aldeko botoekin eta Batasunaren abstentzioarekin.

Udalak eta Gizartekintzak sinatuko duten hitzarmenaren xedea da bi erakundeetako bakoitzak bere kargu hartuko dituen Gizarte Zerbitzuak zehaztea. Izan ere, hitzarmenaren arabera, orain arte ez da egon eskumen zehaztasun argirik, eta horrek disfuntzioak ekarri ditu. Akordioak hauxe ezarri du: zein diren udal edo foru erantzukizuneko programa edo zerbitzuak, eta 2001. eta 2002. urteetako ekitaldietarako ordain ekonomikoa emateko sistema berria. /M.B.



ARTXIBOA

Gizarte Zebitzuak Udalaren eta Aldundiaren artean banatuko dira.

ARETXABALETA

## Aurten ere, guztion laguntzarekin ospatu gura dute Aberri Eguna

Herriko taldetxo bat hasi da dagoeneko Aberri Egun bateratua ospatzeko gertatzeko lanetan. Joan den zapatuan egin zuten lehenengo batzarra, baina parte hartzea eskasa izan zen. Horregatik, han elkartutakoek gainerako herritarren kolaborazioa eskatu gura dute.

Aberri Egun bateratuaren helburua da, alderdi politikoen dinamikatik kanpo eta ideologien gainetik, festa ospatzea. Aurtengoan, martxoaren 23an ospatuko da Aberri Eguna Aretxabaletan. /AMAGOIA LASAGABASTER.

ESKORIATZA

## Herrien Europa mintegia sortzeko hitzarmena sinatu zuen HUHEZIk

Herrien Europa Fundazioak, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Ihardun Multimedia enpresak Herrien Europa mintegia sortzeko hitzarmena sinatu zuten martitzenean.

Lankidetzak bost urte iraungo du eta tarte horretan, Flandes, Bavaria, Eskozia eta Europako beste herrialde batzuen gainean ikerlanak egingo ditu HUHEZIk. Herrialdeon hezkuntza sistema, hizkuntzak eta kulturak aztertuko dira. Ihardunek, bestalde, material didaktikoa kaleratuko du. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

## Herriko 35 emakumek, lagun giroan, bazkaria egingo dute bihar

Emakumeen Eguna delaeta, bihar eguerdian herriko 35 emakumek izena emana dute elkarrekin bazkaltzeko. Eguerdiko ordu bietan Marisanean elkartuko dira, bapo bazkaldu eta dantza batzuk egiteko asmoz. Barazki menestra eta antxumea izango dute jateko, besteak beste. Kafea hartuta, jai giroan trikitixa soinuekin dantza egiteko aukera ere izango dute.

Egun horretan, bestalde, herriko emakumeek aurtengo bidaia nora egin erabakiko dute. /AINTZANE GARDOKI

# Zabalik



MAIDER EGUES

## Telebistarekin edo gabe?

**Etxebizitzaz aldatzear nago eta, imajinatuko duzuen moduan, horrek bere lana dauka. Azkenaldian pilatu ditudan traste guztiak jaso eta beste leku batera eraman behar ditut, eta gero, jakina, dena txukuntzen saiatu. Uf!**

**Baina traste guztien artetik, bada bat oraindik ez dudana erabaki eraman edo ez eraman, eta traste hori telebista da. Telebistarik gabe lasaiago bizi izango nintzela erabaki nuen hasieran eta, egia esateko, oso konbentzituta egon nintzen denboraldi batean. Orain, berriz, ez nago hain ziur; zalantzak ditut. Nola biziko naiz hobeto: "gabe" edo "-kin"?**

**Lehenago joango ote naiz ohera eta, ondorioz, ordu gehiago egingo ditut lo? Gehiago irakurriko dut? Baina albistegiak eta filmak, zer? Eta *Operación Triunfo*-ko Bustamanteren umekeriak ikusten egiten ditudan barreak, zer? Eta Levis-en hurrengo iragarkia azkena baino hobea bada, ezin izango dut ikusi? Ez dakit, ez dakit zer egin... Tira, beteko dut telebistaren hutsunea zer edo zer probetxugarriagoarekin, bai... baina... domeka gris eta euritsuetan pantaila aurrean jaten nituen palomitak, zer? Eta orain dela gutxi atera dudan bideoklubeko txartelaren kredituarekin, zer? Eta *Sorginen Laratza*-ko Jose Antonio Barandiaran eta Bittori, zer? Bah! Daukadan telebista dagoen lekutik mugitzea ere ez du merezi, hain zahartuta dago... Berria erosi beharko nuke eta ez nago gastu handitarako! Hobeto telebistarik gabe, ez?... Jo, baina *Pasapalabra*-ko azken frogan ezin izango dut etxetik konkurtsanteen aurka lehiatu...! Eta Albako dukesak bere alabatxoaren banaketaren harira egingo dituen deklarazioak? Ez nituzke galdu nahi...! Ai, ama! Zer egingo dut! Telebistarekin edo telebistarik gabe bizi? Mmmmmm.... erabaki dut!**

# Gutunak

## Zapiak hainbeste burukomin, eta bere bazterketari muzin?

Neskato marokoar baten buruko zapia dela eta, sortutako ezbaiaren harira, aurtengo Martxoaren 8a (Nazioarteko Emakumeen Eguna) beste kulturetako emakumeei eskaini nahi diet.

Aukeratu dugun leloarekin planteatu nahi duguna zera da: ez ote den itxurakeri hutsa gugandik ezberdinak diren emakumeen zapiaz arduratzea. Edo, nahiago baduzue, zapiaren inguruko gorabeherak ez ote duen balio emakume horiek jasandako benetako arazoen aurrean bestaldera begiratzeko. Adibidez: gurera datozen emakume etorkinei, euren babesgabeko egoeraz probetxua atera nahian, alokairuak normalean baino bi edo hiru bider garestiago kobratzen zaizkienean. Gizarte Segurantza barik neskame lanetan ordutegi bariko jarduna ezartzen zaienean. Gaixotzen direnean tratamendu medikurik ezin dutenean jarraitu ez dutelako botikak ordaintzeko dirurik. Seme-alabendako etorkizun hobe baten bila pateretan haurdun datozenean, baina kostaldean oinak ipiniaz bat kanporatzen dituztenean. Prostituzio lanetan jasan behar izaten dituzten irain, mesprezu, tratu txar eta txantajeak... Horrelakoek ez gaituzte sutan jartzen, ez baitira informatiboak eta tertuliak betetzen dituzten gaiak.

Zapiarekin edo zapi barik ez gara hain ezberdinak emakumeok, nola begiratzen den...! Gurean ere, aurreko belaunaldietako emakumeek familien artean adostutako ezkontzak egiten zituzten, arropa eskuz garbitzen zuten, ogia egin, baratza landu... lurralde urrunetan orain ikusten ditugun emakumeak bezalaxe. Gure amandreei ere bihotza bihurritzen zitzaien erditzean umea galtzen zutenean; ez zutenean behar beste janari familiarendako; bere ahotik kendutakoa seme-alabei ematen zietenean; edo, ume oraindik, seme-alabak morroi edo neskame bidali beharrean aurkitzen zirenean...

Aukeran, nahiago dut berdintzen gaituzten alderdiak azpimarratzea; azken finean, gure zainetako odola berdina da eta gauza antzerakoek mintzen edo pozten gaituzte. Han eta hemen, emakumeondako beti dira mingarriak gurekiko jokaera baztertzaileak. Han eta hemen, emakumeok badugu harro egoteko motiborik ere, gure ekarpenari esker sortzen delako munduko aberastasun gehiena.

Gure gizarteak ez dauka "beste" emakumeei leziorik emateko. Eta, gutxiago, euren toka azpitik berdintasunaz hitz egiten duten mojek; hitz egin aurretik, begira dezatela etxeko alfonbra azpian. Izan ere, euren erlijio katolikoa Jainko bakarrekoa da, eta bera, gizona; ahaltsuena izan arren, seme bakarra aukeratu zuena; Eliza sortzeko agindua gizon bati eman ziona, emakumeei abadetza ukatzen dien Eliza, hain zuzen; mitologia zeharo matxista duena: Eba, saihets batetik sortua, bekatuaren eragile eta ondorengo kalamitate guztien erruduna, eta abar, eta abar.

Ez ditugu ontzat eman behar lurralde eta kultura ezberdinen adierazpen guztiak, baina ezta ere kultura propioarenak. Gure prepotentzia, etnozentrismoa eta ezjakintasuna dira besteena arinegi epaitzera eta ukatzera garamatzanak. Norberarena kritikotasunez aztertzen badugu, gainontzekoen ekarpenak ere hobeto ikusiko ditugu, estereotipoak alboratuz. Eta konturatuko gara "beste" emakumeek mila buelta ematen digutela hainbat gauzatan. Baina hori hurrengorako kontua da...

Bitartean, ongi etorri eta besarkada bat "beste" emakume guztiei.

PILAR ETXANIZ KORTABARRIA (ZUTIK)
Antzuola

## Sindikalismoan potroak soberan

Martxoaren 8 honetarako plazaratu dugun kartelak dioen moduan: *Sindikalismoan, potroak soberan*. Baina ez da hizkera sexistagatik ondoriozta daitekeen interpretazio oldarkorrean, hain zuzen. Emakumezkoen berdintasunaren aldeko borroka luzeak zein nekezak, pittinka, bere emaitzak lortuz doa.

Nekez bada ere, eta urte luze aldarrikatzen eman ostean, legeak emakumezkoen zein gizonezkoen berdintasun formala islatzen hasi dira. Zailtasun handiz zein gainditu beharreko diskriminaziotzarraz, genero femeninoa lan eta gizarte esparruan zein politikoan sartzea lortuz goaz. Etxebizitzak berarekin dituen barrak hausten hasi gara, jarduera sozial eta eratzailean sartuz. Etxeko lan gehiena gure gibeletik egiten jarraitu behar dugun arren, edo pertsonak zein familia harremanak zaintzea gure esku badira ere, erakunde sozial, sindikal eta politikoetan funtsezko garrantzia dugu dagoeneko.

Zoritxarrez, sindikatuak, ESK barne, ez dira oso irekiak aldaketa horiekiko. Aipaturiko kartelak dioen moduan, *Sindikatuetan, barrabil mila; emakumeak... hoa bila*: sindikatuetan, maskulinotasuna eta matxismoa sobera daude.

Esparru sindikalean salatzen dugun matxismoa era askotan adierazten da. Batzuetan, era baldarraz: hizkeran, sinbologian, arrazoibide eta lan eratan, emakumezkoen iritzi eta sentsibilitateekiko mesprezuan...

Beste batzuetan, ordea, era zorrotzean adierazten da: egiten diren ikerketa, eskaera eta aldarrikapenen itxurazko neutraltasunaz; ohiko bizitza sindikala jarraitzeko emakumeek dituzten zailtasunen erabateko ahanztura etxeko lan banaketaren ezagatik; ontzat emanaz lanpostu finko eta kalitatezkoetara heltzeko aukera berdintasun faltsua; hitzarmen kolektiboetan genero aldarrikapenak baztertzen diren presaz; eta beste hamaika eraz.

Sindikatuek matxismoa sobera dute, genero-desberdintasun eta diskriminazioekiko sentsibilitate eza dutela. Ez da batere erraza izango egoera aldatzea. Urte asko dira, gehiegi, eraketa zein jarrera maskulinoekin, mundu politikoa, sindikala eta soziala osatu diren zatiketa sexualari datxekion inertziaz.

Ez da nahikoa izango gertaeraren egiaztapena, ezta bera salatzea. Berdintasunaren aldeko borrokarekin jarraituz, aldaketarako bideari ekiteko neurri zehatzak exijitu beharko ditugu.

Hilabete batzuk barru, udazkenean, hain zuzen, hauteskunde sindikalak hasiko dira. Une egokia izango da zeregin sindikalean garrantzitsua den egitate batean aldaketak agertzeko, enpresa desberdinetako hautagaien zerrenden osaketan, hain zuzen ere. Prozesu horretan isolatu beharko liteke emakumezkooi dagozkigun lekuak betetzea. Eta horretarako, orain bertan hasi beharko dugu aldarrikatzen.

Sindikalismoari sentsibilitate desberdinaz hornitzea, ESK feminizatzea, ohi bezala, borroka prozesu berri bat izango da. Ahalik eta gehien izanda, hobeto egingo dugu. Aldarrika dezagun dagokigun lekua. Lehenik eta behin, gure erakundean.

KONTXI APAOLAZA (ESK)
Arrasate

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



# Kolaborazioa

## Martxoaren 8a: zurea, nirea, denona

Garai honetan geroago eta handiagoa da enplegu kolokatasuna, eskubideak murrizten ari dira, egiturazko langabezia ere handia da, Ongizate egoera beherantz doa, eta horien aurrean, emakumeok egoera horren lehen biktimak gara. Mundu globalizatu honetan, etxeko lanak eginez, emakumeok doan dihardugu, ezer kobratu barik, herrialde industrializatuetan Barne Produktu Gordinaren (BPG) %50 (Euskal Herrian ere bai), eta BPGren %90 herrialde pobretuetan. Mundu eremuan lan egindako orduen 2/3 ekoizten dugu, elikagaien %45, eta diru sarreren %10 eta jabetzen %1 baino ez dugu jasotzen. Buruari heltzeko moduko kopuruak dira, iraingarriak... eta garbi erakusten dute zein esplotazio, marjinazio eta zapalkuntza bizi dugun...

Gaur, XXI. mendearen hasieran, euskal emakumeok gure eskubideen formazko errekonozimendua bizi dugu, baina ez da benetakoa. Garbi dago gizarte hau ez dela demokratikoa, bizitza autonomo eta propioa izateko eskubidea ukatzen digu eta. Egoera horren aurrean, gure errealitatearen kontzientzia hartu behar dugu eta gure eskubideen alde borrokatu behar dugu.

Behar dugu parte hartu, orpoz orpo, Euskal Herriko bizitza politikoan eta sozialean, demokraziaren zimenduak jarri eta askatasuneko gizarte bat eratzeko. Behar dugu gizarteak errekonozitzea eta baloratzea bizitzaren gure erreprodukzio lana, aportazio kualitatibo moduan eta gizartean beharrezkoa delako. Behar dugu konkistatu lan ordaindua eta duina izateko eskubidea, patriarkatuarekin dugun menekotasuna gainditzeko. Behar dugu gure autoestimua garatu, norberak autodeterminatzeko duen ahalmena, gure nortasuna eratzea, gizarte kapitalista eta patriarkal honek nahitaez ezarritako rolak gainditu eta pertsona moduan garatzeko dugun eskubidea lortzeko.

Sexistak ez diren legeak behar ditugu, emakumeen kontrako indarkeria era osoan landuko dutenak. Eskatu behar dugu eskubidea mass-mediek, kulturak... gure balio, gure aportazioak aitortzeko, eta gure jakinduriagatik izendatu eta kontuan hartzeko. Behar dugu hezkuntza bat ezarri, hauek guztiak garatzeko, sormena, norberaren egitea, afektua, atsegina, partaidetza, errespetua...

Eskatzen dugu denbora librea izateko eskubidea emakumeendako. Serio, bizi irauteko zereginak banatu behar ditugu, umeak, gaixoak, pertsona nagusiak, e.a. zaintzea, emakumeok denbora librea izan dezagun herritar moduan politikan, kulturan edo aisian parte hartzeko. Azken baten, gizarte berria eratu behar dugu, Euskal Herriko eskubide indibidual eta kolektiboetan oinarriturik eta herri etika, elkartasuna, berdintasuna eta askatasuna garatzen duten balioetan oinarriturik.

ARRASATEKO EMAKUME KONTSEILUA
Arrasate

## Demokrazia Euskal Herriarendako

Azkenaldian hamaika eraso jasan ditugu herri honetan, maila guztietako erasoak, baina funtsean elkarrekin loturik datozenak.

Loturik, zertan? Espainiar zein Frantziar Estatuek gure herria ukatu eta desagerrarazteko daramaten estrategian.

Garzonen auto guztiak estrategia honen zati bat dira, euskal disidentziaren errepresio juridiko eta polizialaz arduratzen dena, presoen eskubideen aldeko mugimendua, berdin euskal gazteriarena edo desobeditzaileak jipoitu eta legez kanpo utzita, besteak beste.

Estrategia hau harantzago doa, ordea, espainiar zein frantziar erregimen politikoa sendotzera eta ideologikoki homogeneizatzera, kultura, hezkuntza edo ekonomia mailan.

Horretara datoz alor horietan guztietan indarrean jarri dituzten neurri erasokorrak. Pentsaera bakarra dute helburu, frankismoa eta jokabide jakobinoak eraberritzea, eta ondorioz, Euskal Herria suntsitzea.

Finean, demokraziarik gabeko egoera sasi-normalizatu batera eraman nahi dute bi estatuek herri hau, gure nortasun ikur guztiak desagerraraziz, batetik, eta Euskal Herria eszenatoki demokratiko batera eramateko lanean ari diren indar oro, politikoak, sindikalak eta sozialak, ezabatuz.

Horregatik hartu dute Batasunaren aurkako erasoa lehentasunezko neurritzat.

Hau da, beraz, eskaintzen diguten bidea, herri gisa aurrera egiteko biderik eza. Hau guztia salatzeko kalera irten gara, eta konpromiso irmoa azaltzera: herri hau ukatu eta desagertzera daraman marko ez demokratiko hau gainditzeko konpromisoa, herritar ororen eskubide guztiak errespetatuko dituen marko berri bat osatzeko konpromisoa azaltzearekin batera.

Bide hau egiten jarri behar ditugu indarrak. Indar guztiak. Herri hau eszenatoki demokratiko batera eramateko estrategiaz erantzun behar diegu bi estatuei, erreforma garaian egin genuen moduan, marko usteldu hau gainditu eta euskal herritar ororen artean berri bat osatuz.

Eta horretarako, mobilizatu egin behar dugu, herri gisa mobilizatu, dagozkigun eskubide guztien defentsan, euskaraz mintzatzeko dugun eskubidearen defentsan, geure hezkuntza sistema propioaren defentsan, Europan herri gisa aritzeko beharrezkoak ditugun tresna ekonomiko nahiz politikoen defentsan.

Alderdikeriak alde batera utzita, demokrazia Euskal Herriarendako aldarrikatuz aurrera! Ezin dugu denborarik galdu, ezin atzera egin, askatasuna eta demokraziaren aldeko bidea da gurea, guztion artean osatu nahi duguna.

BATASUNA
Debagoiena

## *Eska dezagun dagokigun lekua*

Urteetako borrokaren ostean, aldaketa sakonak gertatu dira, batez ere emakumeen aldetik. Baina egia da, halaber, oraindik errebindikazio asko lortzeke eta erresistentzia ugari gainditzeke daudela. Horietako bat, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna helburu, emakumea espazio publiko guztietan sartzea da. Teorian, edozein emakume egon daiteke botere-gune horietan, betiere, espazio publikoan egotea eta bere bizitza pribatuko planteamenduak uztartu ahal baditu. Gizonek argi dute alderdi hori, planteatu beharrik ere ez baitute.



MALEN ERRASTI
Arrasate

*"Berdintasuna lortzeak dakarren errealitatearen eraldaketa, ezin da legeak aldatzera mugatu, ezta emakumeen borrokara ere"*

Emakumeari garesti ateratzen zaio parte-hartze hori: etxeko lanak egin, senideak zaindu, beldurrak gainditu... guztia egin behar du. Bai, hori da, beldurrak ere gainditu behar ditu: espazio publikoarekiko beldurra, ezezaguna denarekiko beldurra eta gizonek beren eserlekua uzteko jartzen duten erresistentziarekiko beldurra...

Emakumeak kargu publikoak hartzeko berdintasun-baldintzetan, aldaketa sakonak egin behar dira. Gizonek onartu egin behar dute benetako demokrazia parekidea, eta ez dute trabarik jarri behar horretarako. Emakumeei postu eta espazio publikoak lagatzeko ahalmena izan behar dute. Espazio pribatuan ere asko aldatu behar dira gauzak: gizonek etxeko lanen, umeen eta laguntza behar duten pertsonen ardura hartu behar dute.

Bestalde, gu geuk ere aldatu behar dugu. Ez dugu onartu behar guztiok zaku berean sartzea, hau da, emakume baten portaera emakume guztiona izango balitz bezala epaitzea. Eta azkenik, Politika egiteko moduak, hizkuntza erabiltzeko erak, balio menperatzaileak... ere aldatu behar dira.

Erabakiak hartzeko guneetan emakumeen presentzia handitzeko tresnetako bat kuoten sistema da. Nahikoa kritika jasan ditu sistema honek. Kuoten sistemaren aurka daudenek erabili ohi duten argumentua gaitasunarena da, hau da, postu bakoitzerako pertsonarik lehiakorrena aukeratu behar dela, sexua kontuan hartu barik.

Gure lehen kontrako arrazoia bi galderatan laburbiltzen da. NORK aukeratzen ditu ordezkari politikoak, hautetsiak, erakundeetako liberatuak, agintzen dutenak...? eta NOLA? Horiek guztiak aukeratzen dituztenak gizonak dira. Irizpideak ere gizonek ezartzen dituzte, eta beraz, gizonek ezarritako irizpideak dira esparru publikoan baloratzen direnak: lehiakortasuna, oilarkeria, botere-grina, libre egotea... Gizona dagoen lekuan gizona delako dago, emakumeekiko botere-harremana duelako. Boterea ez dio gaitasun pertsonalak eman, artasunak baizik. Lana sexuaren arabera banatzearen ondorioa da duen boterea.

Badago beste argumentu mota bat, parekotasunaren kontrakoa dena eta ezkertiarren artean dabilena. Horiek diotenez, emakumea ezin da berdintasunezko parte-hartzea eskatzeaz konformatu; politika egiteko moduan aldaketa kualitatiboa ere beharrezkoa da. Demokraziaren, askatasunaren eta justiziaren defentsak emakumeak berdintasunean espazio publikoak okupatzea esijitzen du, eta horrek esan nahi du emakume ezkertiarrak eta eskuindarrak egotea, emakume solidarioak eta ezsolidarioak, lehiakorrak eta ez-lehiakorrak.

Espazio horietara, gizon eta emakumezkoen bizitza alda dadin nahi duten emakumeak heltzea gustatuko litzaiguke, gure eskubideen alde borrokatu nahi duten emakumeak eta ez pribilegio pertsonalak lortu nahi dituztenak. Baina ez diogu utziko emakumeok ere gizonek bezain gaizki egiteko eskubidea dugula erreibindikatzeari, ez baitiegu ezarriko gizonezkoei eskatu ez diegun kalitate-kontrola.

ESK ez da ezberdina beste erakunde sindikal batzuen aldean hizpide dugun eremuan. Gure sindikatuan genero-desberdintasunak dira. ESKeko afiliatuen %46 emakumezkoak dira, eta delegatuen %26 bakarrik dira emakumezkoak, eta zuzendaritza-organoetan parte hartzen dutenen kopurua ez da laurdena izatera heltzen.

ESKeko gizon eta emakumeak kontzientziak, ohiturak eta portaerak aldatzeko eginkizunean inplika gaitezen nahi dugu, berdintasunaren aldeko bide luzea laburtzeko.

Beharrezkoa da berdintasunaren alde borrokan jarraitzea, eta aldaketa ahalbidetzeko neurri zehatzak eskatzea. Udazkenean hauteskunde sindikalak hasiko dira, eta une egokia da sindikatuen lanaren alderdi garrantzitsuenetako batean aldaketak egiteko: hauteskunde-zerrenden osaera aldatzeko. Prozesu horren zati bat honetan datza: emakumeok dagokigun tokia okupatu behar dugu.

Berdintasuna lortzeak dakarren errealitatearen eraldaketa ezin da legeak aldatzera mugatu, ezta emakumeen borrokara ere. Gizon eta emakume guztiok konprometitu behar dugu.

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ELENA FREZ

# Virginia Imaz

PAILAZOA ETA AKTOREA

## “Egun guztiak dira Emakumearen Eguna, edo Gosearen Eguna”

Euskal Herrian nagusiendako *clown* eta maskara antzerkiak egiten dituen bakarretakoa da Virginia Imaz bergararra. Urteak daramatza Oihulari Klown taldean. Cirque du Soleil zirku ospetsuarekin ere ibili izan da, eta Txalo taldearekin Bernardo Atxagaren *Banbulo* antzezlanean dihardu, *Banbulo* txakurrarena egiten. Oihulari Klown-ekin, *Modelo Klowntrapublizitarioa* aspaldiko antzezlanaren euskarazko bertsioa estreinatu du oraingo astean.

KAZETARIAREN IZENA

**Nazioarteko Emakumearen Eguna da gaur. Ospatzeko ohiturarik baduzu?**

Jeneralean, lan eginez ospatzen dut egun hau… Ez, ospatu ospatzen dut Emakumearen Eguna. Ahal dudanean eta lanak uzten didanean, afari edo bazkariren bat antolatzen dugu; eta, bestalde, lagunen artean zorion-mezuak elkar trukatzen ditugu posta elektronikoen bidez. Baina txarrena –edo onena– izaten da egunotan lan handia edukitzen dudala. Martxoaren 8aren inguruan, udal, diputazio, eta abarretatik eskaintza ugari jasotzen ditugu. Berdintasunaren gaineko hausnarketa egin, baina, era berean, umorea erabili nahi izaten dugu gure emanaldietan. Horrelako egun baterako oso egokiak izaten dira gure antzezlanak.

**Ospatzeko baino areago, emakumearen berdintasuna aldarrikatzeko eguna da?**

Emakumearen Eguna, gosearen eguna… Egun guztiak dira Emakumearen Eguna edo Gosearena Eguna... Baina, tira! Ez dago txarto horrelako egunak egotea, gutxienez, gogora ekartzeko egunero gosez hiltzen diren pertsonak daudela munduan, edo emakumeok hainbat arlotan ez ditugula gizonezkoek dituzten eskubideak. Hori esanda, uste dut, jeneralean, bai emakumezkooi eta baita gizonezkoei ere ahaztu egiten zaigula benetan garrantzitsuak diren gauzak baloratu behar ditugula: maite duzun eta maite zaituen jendearengandik gertu egotea zein garrantzitsua den, bizitza zein ederra den, osasuna zein garrantzitsua den…

**Feministatzat duzu zure burua?**

Bai, horretan ez daukat zalantzarik. Hala ere, batzuetan haserretu egiten naiz horrelako galderak egiten dizkidatenean; izan ere, askotan, lan berri bat estreinatzen dugunean, horixe galdetzen didate: “Feminista zara ala femenina zara?”. Horren tankerako galdera leloak entzuten aspertuta nago. Gizonezkoei ez diete galdetzen matxistak diren edo ez diren, edo zein partidu politikokoak diren edo nik ez dakit zer…

**Zelakoak garen kazetariok…**

Hedabideetatik-eta feminismoaren irudi txarra saltzen ahalegindu direla uste dut. Botereak sarri erabiltzen duen estrategia da. Hainbat mugimendu marginal barregarri uzteko ahalegina egiten dute. Orduan, feminismoa sexuen arteko gerra moduan saltzen badute, edo feministak *gizonjale* moduan aurkezten badituzte… bada, ni ez naiz feminista. Askotan hitzek beldurtu egiten gaituzte. Beldurra sorrarazten digu “heriotz” hitzak, edo “maite zaitut” esateak… Tamalez, zeure burua feministatzat aurkezteak edo emakumeei zuzendutako antzezlanak egiteak hainbat ate itxi dakizkizuke. Lan honetan ikasi nuen lehenengo gauzetako bat izan zen neure buruaz barre egitea. Eta zelan egingo dut barre neure buruaz, naizen modukoa agertzen ez banaiz eta onartzen ez badut emakumea naizela?

### FEMINISMOA

**“Feminista zara ala femeninoa zara? Horren tankerako galdera leloak entzuten aspertuta nago. Gizonezkoei ez diete galdetzen matxistak diren edo ez diren”**

**Desberdina da emakumeen eta gizonezkoen umorea?**

Horixe dela desberdina. Ez dugu gauza berberei buruz barre egiten. Oraindik ez dut gizonezkorik ikusi hilekoa etorri zaiolako barre egiten. Normala, ezta? Bada, horrelako gauza jakinek balditzatzen dute gure lana. Ni emakumea naiz eta normala da, neure buruaz barre egiten dudan neurrian, emakumeei interesatzen zaizkien edo gertatzen zaizkien kontuei buruz jardutea. Baina badira beste hainbat gai edozeinendako modukoak direnak edo gizonezkoei ere barregura ematen dietenak. Jakina, hau ere esan beharrekoa da: “Ni emakumea naiz eta zu gizonezkoa, baina seguru nago zerikusi handiagoa daukadala zurekin El Salvadorko nekazarigune baten bizi den emakume batekin baino. Erreferenteak aldatzen badituzu, umorea ere aldatu egiten da. Edozelan ere, erreferente unibertsalak, denok konpartitzen ditugunak, erabiltzen saiatzen gara gure antzezlanetan.

**Tokitik tokira desberdin erantzuten dute ikusleek?**

Bai, bai, bai. Esaterako, zenbat eta hegoalderago joan, jendeak orduan eta gehiago hartzen du parte ikuskizunetan. Euskal Herrian itxiagoak eta hotzagoak gara, asko kostatzen zaigu garen modukoak agertzea. Barre egitea emozioak azalerazteko modu bat da. Toki batzuetan, jendea mezara doan moduan joaten da antzerkia ikustera, eta, barrez lehertzeko zorian egon arren, barrurako egiten du barre. Niri gertatu zait antzezlan bat ikusten egon, sekulako barre algarak egin, eta aurreko ilarako emakumeak “errespetu pixka bat, mesedez” esatea. Jendeak barre egiteko eskubide guztia dauka eta pailazook, gizartearen ispilu garen neurrian, asko daukagu esateko. Horixe aldarrikatu nahi dugu. Lehenagoko bufoien ofizioa da gurea. Telebista izugarrizko botere mediatikoa da eta gure ikuskizunetan telebistaren gainean edo publizitatearen gainean jarduten dugunean, jendeak erreferente horiek konpartitzen ditu eta sekulako barreak egiten ditu, kontu horiekin oso arduratuta dagoelako.

### PAILAZOAK

**“Jendeak barre egiteko eskubide guztia dauka eta pailazook, gizartearen ispilu garen neurrian, asko daukagu esateko. Horixe aldarrikatu nahi dugu. Lehenagoko bufoien ofizioa da gurea”**

**Hori egiten duzue *Modelo Klowntrapublizitarioa* antzezlanean. Zergatik berreskuratu duzue aspaldiko lan hori?**

Antzezlana 1993an estreinatu genuen, baina jorratzen ditugun gaiak indarrean daude oraindik. Bestalde, jendeak gustuko du eta askotan eskatzen digute antolatzaileek. Euskaraz estreinatu

dugu oraingo astean Donostiako Antzoki Zaharrean, eta zapatuan, Bergaran emango dugu.

**Zein mezu zabaldu nahi duzu antzezlan horrekin?**

Helburu nagusia da neure buruaz barre egitea eta, pisua dela edo arropen neurria dela, ditudan arazoengatik barre egitea. Oso terapeutikoa da antzezlan hori niretako. *"El algodón no engaña"* esaldia, esaterako, eguneroko argotean erabiltzen dugu, telebistan hainbeste ikusi eta entzun ondoren. Baina ez da hori bakarrik: kuriosoa da etxea garbitzeko produktuak –hau da, lixibak, xaboiak, eta abar– direla eta, emakumea zelan erabiltzen duten telebistako iragarkietan. Produktuoi esker, etxea berez garbitzen ei da edo nahiz eta luzaro jardun etxea garbitzen, azkenean, gizonezko bat etorriko zaizu ondo garbitu duzun edo ez epaitzera eta ondo garbitzeko zer egin behar duzun esatera.

**Azken urteotan, aurrera edo atzera egin dugu sexuen berdintasunari dagokionez?**

Nire ustea da *inpasse* moduko batean gaudela, hau da, ez atzera eta ez aurrera. Edo, agian, zertxobait atzera egin dugula. Hainbat kasutan, erakunde publikoek uste dute nahiko lan egin dutela eta dagoeneko ez dagoela berdintasunaren alde gehiago egin beharrik. Nire ustez, kontu horretan kontzientziazio kanpainak beharrezkoak dira oraindik. Arlo askotan aurreratu egin dugu, hori nekez jar dezakegu zalantzan. Ni neu, gure ama edo gure amama baino askoz hobeto bizi naiz. Baina berdintasunaren kontu hori ez da egun batetik bestera sendatzen den katarroa. Ez, hori serioagoa da eta denbora beharko dugu benetako berdintasuna lortzeko. Onena da norbera barrutik aldatzen ahalegindu eta, horrela, ondokoa kutsatzen saiatu.

**Buruan zapia zeraman neska marokoarraren kontua albiste eta hizpide izan da asteotan. Zer iritzi daukazu kontu horren gainean?**

Hedabideek sekulako manipulazioa egin dute. Hainbat kasutan, beste kultura bateko emakumeek erabiltzen duten buruko zapia hemengo emakumeek erabil dezakegun faxarekin konparatuko nuke. Gauzak naturaltasun handiagoarekin hartu beharko lirateke; izan ere, behin eta berriro kontu beraren gainean bagabiltza, arazoa ez dugu konponduko. Edozelan ere, neska haren gurasoei esango nieke, uniformea eskatzen duen ikastetxe pribatu batera eroan beharrean, norberk nahi duen moduan jantz daitekeen eskola batera eroan dezatela alaba. Eta, hedabideei eta gizarteari, oro har, berriz, esango nieke beste kultura batzuetako ohiturei erreparatu beharrean, hemengo arazoak konpontzen saia daitezela. Han eta hemen, emakumeok asko daukagu hobetzeko. Geroago eta gizarte uniformeagorantz goazen honetan, kultura aniztasunaren eta identitate aniztasunaren aldeko balioak bultzatu beharko genituzke.

BERDINTASUNA

## "Berdintasunaren kontua ez da egun batetik bestera sendatzen den katarroa. Serioagoa da"

CIRQUE DU SOLEIL

## "Zirkoko *clown*-a eta antzerkikoa zein urrun eta zein gertu egon daitezkeen ikasi dut"

**Cirque du Soleil konpainiak mundua ezagutzeko aukera eman dizu. Zelako esperientzia izan da?**

Cirque du Soleil taldearekin ia hiru urte eman nituen, 1998tik 2000ra, batez ere Ameriketako Estatu Batuetan eta Kanadan. Oso polita eta aberasgarria izan zen. Asko ikasi eta disfrutatu nuen. Ni ez nengoen ohituta 1.700 lagunen aurrean lan egitera. Niretako ohikoagoa da 25 laguneko areto txikietan lan egitea. Ordura arte, zirkuan apenas lan egindakoa nintzen eta Cirque du Soleil-ek *clown* klasikora hurbiltzeko aukera eskaini zidan. Zirkuko *clown*-a eta antzerkiko *clown*-a zein urrun eta, era berean, zein gertu egon daitezkeen ikasteko aukera izan nuen.

**Txalo Produkzioekin, Atxagaren *Banbulo* antzezlanean diharduzu. Zer moduz?**

Horri esker, maskara antzerkia egiteko aukera izan dut. Erronka handia izan da niretako, euskaraz lan egiteko eta, batez ere, Atxagaren hain testu ederrarekin lan egiteko aukera izan dudalako. Gainera, Atxaga ezagutzeko eta Ramon Barea mirestuarekin lan egiteko aukera izan dut. Lan literarioa da eta pasio handiak sorrarazi ditu; izan ere, hainbati ez zaio gustatu eta beste batzuk, ostera, liluratuta geratu dira.



*Podiuma*

# Fernando Raso | ESKORIATZA KE-KO ENTRENATZAILEA |

**Eskoriatza KEko nesken saskibaloi taldea 2. mailara igoera lortzeko lehian da. Eskoriatzarrek zazpi partidu jokatu dituzte igoera fasean: lau partidu irabazi eta gainerako hirurak galdu egin dituzte. Joan den zapatuan, Eskoriatza 58-50 nagusitu zitzaion Donostiako Tecnun taldeari. Zapatuan, berriro ere etxean jokatuko dute, Tolosako Laskorain taldearen aurka, Eskoriatzako kiroldegian, 18:00etan. Fernando Raso dugu eskoriatzarren entrenatzailea.**



ARRASATE PRESS

Fernando Raso, Josu Bakerorekin ari da entrenatzaile lanetan.

**“Hemendik pare bat urtera Eskoriatzako nesken saskibaloi taldea bigarren mailan ondo ibiltzea da gure asmoa”**

**“Donostialdeko taldeekin konparatuz gero, nahiko atzeratuta gabiltza, eta harrobia lantzeko urratsak eman nahi ditugu”**

**Bigarren mailara itzultzea posible ikusten duzu?**

Momentuan, hirugarrenak gara sailkapenean, eta lehenengo sailkatzen denak lortuko du 2. mailarako igoera. Lehen itzuleran nahiko ondo ibili gara eta, egia esan, galdu ditugun hiru partiduak irabazi ahal genituen: Oriogi liderraren aurkako partiduan, Eskoriatzan, 14 minutuan puntu bakarra egin genuen. Hala ere, 10 puntuko aldea bakarrik atera ziguten. Gu baino gehiago ez zirela ikusi zen; Intxaurrondoren aurka, berriz, 20-0ko partziala egin ziguten, eta zazpi puntugatik galdu genuen; eta, azkenik, Bera-Beraren kontrako partidua nahiko nahasia izan zen epaileen erabakiengatik, eta errekurtsoa aurkeztuko dugu. Igoera lortzeko, bigarren itzuleran ezin dezakegu partidurik galdu.

**Zein da taldearen benetako maila?**

Bost urte eman ditugu 2. mailan, eta beharbada hor aritzeko esperientzia handiagoko jokalarien falta sumatu dugu. Horretarako, azpiko kategorietan lan egitea ezinbestekoa da. Orain preferentean ondo gabiltza, nahiz eta maila horretara egokitzea uste baino gehiago kostatu zaigun. Bigarren mailan aritzeko beharbada ez dugu maila nahikoa. Justu samar ibiliko ginateke. Hemendik pare bat urtera bigarren mailan ondo ibiltzea da gure asmoa. Baina horretarako azpiko kategoriak lantzea ezinbestekoa da.

**Harrobirik badaukazue Eskoriatzan?**

Kirol guztietan zailtasunak daude, baina are gehiago saskibaloian, eta, zer esanik ez, emakumezkoetan. Ez dago jarraipenik eta infantiletan jokatu ondoren, askok jokatzeari uzten diote. Eskoriatzan emakumezkoen kirolaren aldeko apustua egin genuen, eta saskibaloiko hiru talde ditugu gaur egun. Etorkizunean gehiago eduki nahiko genuke. Hala ere, Donostialdeko taldeekin konparatuz gero, askoz ere atzerago gaude Debagoienean. Hori zuzendu beharra dago.

**Zer egin daiteke?**

Gipuzkoako Federazioarekin batera harrobia lantzeko urratsak eman nahi ditugu. Debagoieneko taldeetako arduradunekin hitzaldi hezigarriak egin gura ditugu eta, bestalde, hamabostean behinedo teknikaren hobekuntzarako saioak egiteko asmoa daukagu ibarreko neska-mutikoekin.

EDU MENDIBIL



## Mondrak Amaikak Bat liderrari irabazi zion

Lehen erregional mailako Mondra futbol taldeak 3-1 irabazi zion Amaikak Bat liderrari, Atxabalpen. Arrasatearrak sasoi onean ditugu. Zapatuko garaipenaren ondoren, bosgarren dira sailkapenean, eta liderra sei puntura dago. Datozen partiduak erabakigarriak izango dira. Jon Muruamendiarazek (bi) eta Iban Garai *Muxi*-k egin zituzten etxekoen golak zapatuan.

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Jaime Agirre
## Futbolaria



Jaime Agirre, Ceutako futbol zelaian, 1962an.

**Gipuzkoako Gazte Selekzioan jokatu zuen.**

**Rifihen Jhadu eta Mirandes taldeetan aritu zen.**

**Hamar bat urte Aloña Mendin eman zituen.**

Aloña Mendiko gazte taldean hasi zen jokatzen eta 17 urterekin talde nagusiarekin debuta egin zuen, Patxi Urtzelai entrenatzaile zela. Zelai erdian, ezkerrean jokatzen zuen, 10 zenbakiarekin: “Bi hankekin ondo jotzen nuen baloia, baina penaltiak eskumarekin jaurtitzen nituen, badaezpada”. Gipuzkoako Gazte Selekzioarekin izan zen 1958an: “Talde hartan, Artzak, Urtiaga, Etxabe edo Arriaga zeuden, eta Espainiako Txapelketan Murtziaren kontra galdu genuen finalaurrekoan”. Atletismoan ere nabarmendu zen, eta, urte berean, eskola arteko Espainiako Txapelketan txapelduna izan zen luzera-jauzian eta 110 metroetako hesiproban. Soldadutzara joan zenean, Ceutako Rifien Jhadu taldean jokatu zuen, 3. mailan: “Real Madrilen aritutako Pirri gazte taldean zebilen, eta argi zegoen primerako futbolaria izango zela”. Soldadutzatik bueltan, 3. mailako Mirandes taldearekin fitxatu zuen: “Talde erdia baino gehiago Debagoienekoak ginen eta Aretxabaletan entrenatzen ginen askotan”. Handik Aloña Mendira itzuli zen: “Urte onak izan ziren eta 3. mailara igotzeko gertu egon ginen behin. Hala ere, huts egin genuen azken partiduan, Deban”. Hezurretaraino Realzalea dela dio eta txuri-urdinak zulotik irteteko gai izango direla uste du. /E. M.

*“Aloñarekin 3. mailara igotzeko gertu egon ginen”*



Jaime Agirre • Oñati • 1940

BABESLEA

VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 • 20500 ARRASATE
Tel.: **943 79 78 10**

Ibargarai, 4 • 20570 BERGARA
Tel.: **943 76 12 21**

*Debagoieneko Kirol Zerbitzuen berriak*

# Mankomunitatearen eta Kirolgi Fundazioaren arteko hitzarmena

**Kirolgi Fundazioaren eta Debagoieneko Mankomunitatearen arteko hitzarmen horren helburua da baliabide ekonomikoak eskuratzea, gerora eskualde horretan bertan erabiltzeko. Eta, horrekin batera, zerga abantailen berri eta urte hauetan guztietan pilatu duen eskarmentuaren berri emango dio Kirolgi Fundazioak Debagoieneko Mankomunitateari.**

Eskualdeko enpresen laguntza eta babesletza eskuratu nahi du Mankomunitateak, eta hitzarmen hori baliatu nahi du kirol klubetara eta elkarteetara diru-laguntzak bideratzeko, haien bizi iraupena ziurtatu eta etorkizuna sendotzeko modua izan dezaten, egiturak eta proiektuak berrituta.

Eskuratutako babesletzak baliatuko dira kirol helburu nagusi hauek finantzatzeko:

- Debagoieneko kluben azpiegiturak eta zerbitzuen kalitatea indartu.
- Eskualde mailako kirol elkarteen edo taldeen sorrera bultzatu.
- Emakumezkoek errendimenduko kirolean parte har dezaten bultzatu.
- Gutxiengoaren modalitateak edo bertakoak bultzatu.
- Debagoienean antolatzen diren goi mailako kirol ekitaldiak bultzatu.

Eskualdeko enpresen artean babesleak aurkitzeko kanpainaren lehenbiziko fasea amaitu ostean zehaztuko dira dirulaguntzak banatzeko irizpideak. Eskualdeko enpresa handiekin lankidetza estua lortu nahi da, haien izena Mankomunitatearekin lotzea ahalbidetuko duena, eta alderantziz.

### Zozketan sarituak

Debagoieneko Udal Kirol Zerbitzuek egindako zozketan, honako hauek izan dira sarituak, bazkide txartel banarekin:

- Amaia Alvaro (Arrasate)
- Sabino Elkorobarrutia (Arrasate)
- Andoni Sagastume (Bergara)




**Luis Bandres Kirolgi Fundazioko presidentea eta Kultura, Euskara, Gazteria eta Kiroletako Foru diputatua eta Victoriano Gallastegi Debagoieneko Mankomunitateko presidentea eguazteneko sinatze ekitaldian. Biek hala biek, Kirolgik Debagoieneko kirol taldeei, kirolariei eta antolaketa proiektuei emango dien babesa azpimarratu zuten.**

# Kirolari guztiendako Kirol Medikuntza Zerbitzua

## Musakolako kiroldegian inauguratu zuten atzo

**Kirol Medikuntza Zerbitzua inauguratu zuten atzo arratsaldean Arrasaten, Musakolako kiroldegian. Zerbitzu hori kirola egiten duten guztiei zuzenduta dagoela azpimarratu gura izan du Alberto Garai medikuak.**

Debagoienean dagoen Kirol Medikuntza Zerbitzu bakarra da atzo Arrasaten inauguratu zena. Musakolako kiroldegian egindako berritze lanekin batera, Kirol Medikuntza Zerbitzuaren instalakuntzak ere hobetu egin dituzte. Abenduan, 15 urte beteko dira zerbitzu hori zabaldu zenetik. Bertan, Alberto Garai eta Maria Sagasti medikuak eta Oihana Uribetxeberria erizaina ari dira lanean gaur egun. Alberto Garai arrasatearra ONCE-Eroski txirrindulari taldeko mediku ere bada.

Zerbitzua kirola egiten duten guztiei zuzenduta dago. Garairen hitzetan, "federatutako taldeekin eta kirolariekin lan egiteaz gain, jende arruntari ere zabaldu nahi dizkiogu ateak. Hortaz, eskola arteko kirolean ari diren gaztetxoengana edo pertsona edadetuengana ere heldu gura dugu, prebentzioa bultzatze aldera. Gaur egun, kirolen bat egiten hasi aurretik oso garrantzitsua da aurretik osasun azterketa sakona egitea. Horrelako azterketak egiteko material egokia dugu. Betiere, kirola modu osasungarrian egiteko urratsak ematea da gure helburua".

Musakolan irekitako lokala berria, funtzionala eta modernoa da. Garairen arabera, "oso ondo ekipatutako zerbitzua edukitzea lortu dugu, eta orain jarritako makina berriekin nabarmen egin dugu hobera". Esan bezala, azterketak egiteaz gain, beharrezko aholkularitza ere emango zaie kirolariei. Era berean, gaixotasunen bat dutenen egoera kirolaren bitartez zelan hobe daitekeen ere aztertzen dute. Zerbitzua aste barruan izango da zabalik.

Atzoko ekitaldian izatekoak ziren, besteak beste, Joane Somarriba, Joseba Beloki, Igor González de Galdeano eta Juan Llaneras txirrindulariak, Trintxerpeko eta Orioko hainbat arraunlari eta Marino Lejarreta txirrindulari ohia.

EDU MENDIBIL




Ez baduzu inoiz Stressless® bat probatu, ez dakizu zer den atseden hartzeaz gozatzea. Stressless®-ko besaulkien eta sofen gamak, bere teknologia aurreratuari esker, zuk behar duzun erosotasun plusa eskaintzen dizu. Eta hamar urteko bermea duen Plus Sistema™ sistema esklusiboarekin. Ekornes®-ko Stressless-ek bakarrik eskainiko dizu hori guztia, eta, beste inor bezala, zure mugimenduei egokituko da. Zure morfologiari. Zure estiloari. Baita dekorazioari ere.

* Stressless®, Ekornes® talde norvegiarraren marka erregistratua da.

Zatoz eta ikus ezazu Stressless® Confort Gunea kontzesionario ofizialean:

Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24

EKORNES®




Maalako errabala 13 • ARRASATE • 943 79 92 76

Goienka2a

Egubakoitza / 2002ko martxoaren 8a

Kultura eta aisialdia

Martxoaren 8tik 15era

# OSKORRI, VIZCAYATIK BIZKAIARA

**Zelan jaio zen *Vizcayatik Bizkaiara*, Oskorriren proiektu berria?**

Xabier Amurizak orain dela hiru urte bota zigun erronkaren emaitza da. Hark bi liburutan bildu zuen Bizkaiko bertsogintza, bizkaieraz. Batzuk aukeratu eta monografikoa egitera gonbidatu gintuen, eta horra hor emaitza.

**Zelakoa izan zen lan hori?**

*Galdutako doinuaren bila* ibili behar izan genuen. Izan ere, bertso horiek guztiak XIX. mendekoak dira, eta guk ez genekien zelan abesten zituzten bere garaian. Kasu batzuetan aurkitu genuen bertsoari zegokion doinua, adineko jendeak abestuta-eta; baina beste batzuetan, ordea, ez dugu aurkitu.

**Kontzertu hau ez ei da kontzertu arrunta, ikuskizunak ere pisu handia du, ezta?**

Bai, horixe! Konturatu ginen oso kutsu berezia zutela bertsoek, zorrotzak eta umoretsuak zirela, eta hiru aktoreren laguntzarekin esketx antzeko batzuk prestatu genituen. Taldekideok modu berezian jantzita agertuko gara, eta ikusleek ere parte hartu beharko dute. Sarrerarekin batera hainbat tresna banatuko ditugu, eta gero tresna horiek erabiltzeko eskatuko diegu ikusleei. Prozesio baten ere parte hartu beharko dute…

**Diskora bueltatuaz, Bizkaiko tradizioa bakarrik jasotzen du; oso desberdina da gainerako euskal bertsogintza eta Bizkaikoa?**

Ez, izatez ez du aparteko ezaugarririk. Baina ezusteak hartu ditugu. Kontua da kantu horiek ez direla Azkuek, Aita Donostiak… bildutakoak modukoak. Bildumagile horiek abadeak ziren, eta herriak ez zien hainbat bertso kantatu gura, latzak zirelako, kritika soziala eta politikoa egiten zutelako… Baina Euskal Herri osoko patrimonio dira, ez bakarrik Bizkaiko patrimonio.

**Hainbeste urteren ondoren, ez zaizue gaitza egiten ideia berriak aurkitzea?**

Ez, ez! Gu txintxo-txintxo gabiltza oraindik lanean, betiko moduan! Orain, Kukubiltxoren 25. urtemuga dela-eta egingo den antzezlanaren soinu-banda grabatzen gabiltza.

NATXO DE FELIPE

## “Diskoan, galdutako doinuaren bila ibili gara”



Oskorrik zapatuan, hilaren 9an, joko du Bergarako pilotalekuan.

AZALA: GOIO ARANA / ARGAZKIA: K.A.P. PRODUKZIOAK

KONTZERTUA/ **OSKORRIREN DISKO ETA IKUSKIZUNA BERGARAN**

# XIX. mendeko Bizkaia, kantutan

OSKORRIK BERE DISKO BERRIA, 'VIZCAYATIK BIZKAIARA', AURKEZTUKO DU BIHAR, ZAPATUA, BERGARAN ETA 23AN ARRASATEN

**Oskorri taldea Debagoienera dator. Bihar, zapatua, izango dira hemen. Aukeratutako lekua, Bergarako pilotalekua. Bertan, 22:30ean, *Vizcayatik Bizkaiara* izeneko disko eta ikuskizun berriak aurkeztuko dituzte. Hurrengo, Arrasatera joango dira, hilaren 23an, hain zuzen ere.**

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan aurkeztu zuen Oskorrik bere azken lana, *Vizcayatik Bizkaiara*. Ordutik hona, hainbat lekutan entzun eta ikusi ahal izan dira diskoko doinuak eta bertako istorioetan oinarritutako kontakizunak.

### ENTZUTEKO ETA IKUSTEKO

Betiere, adiskide onez inguratzen dira taldekoak, eta oraingoan Kepa Junkera, Michel Bordeleaux eta Eliseo Parra izan dira Oskorriren bidaia-lagun. Junkerak eta Bordeleauxek grabaketa lanetan hartu dute parte; Parra, berriz, koprodukzio lanetan ibili da oraingoan. Emaitza, hamabost abesti batzen dituen diskoa. Xabier Amurizaren laguntzarekin batu eta moldatu dituzte Oskorrikoek Bizkaiko hainbat herri bertso, eta bizkaieraz kantatzen dituzte: "Istorio zuzenak, arinak, alaiak eta, askotan, sinestezinak dira", diote.

Hori, entzutekoari dagokionez; baina ikustekoak pisu handia du Oskorriren emanaldi honetan. Taldekideek eta hiru aktorek antzezle lanak egingo dituzte, eta hegazkinak, itsasontziak eta bestelako ezuste batzuk ere ez dira faltan izango. Horrela, XIX. mendeko Euskal Herriko erretratua egingo dute bilbotarrek. Markanok Ameriketara joateko hegazkina zelan egin zuen jakingo dugu; edo Ameriketako tximu bat Lekeitioko abade batenean neskame zelan izan zen ikasiko dugu.

LEIRE KORTABARRIA


K.A.P. PRODUKZIOAK
**Ikuskizunak pisu handia izango du Vizcayatik Bizkaiara diskoaren aurkezpen kontzertuan.**


OMU
ZERAMIKAK
DEBAGOIENA
BILTEGIA ETA BULEGOAK
Meatzerreka 6 • ARRASATE
Tel : 943 79 14 28 / Fax : 943 79 40 43
ERAKUSKETA
Ignacio Zuloaga 4 • ARRASATE
Tel : 943 79 07 20


**SHOW-A/ MONOLOGO MUSIKATUA EGIN ZUTEN BERGARAKO POL-POL TABERNAN**

# Ondo esanak eta eginak

RAMON AGIRRE ETA J. R. SENPERENAREN 'TWO MAN SHOW': ERREALITATE ZATIEN KOMEDIA MUSIKATUA

**Tokia:** Bergara. **Aretoa:** Pol-Pol taberna. **Jendea:** Taberna bete-bete egindа. **Taulan:** Ramon Agirre eta J.R. Senperena. **Obra:** Ondo esan beharko. **Antolatzailea:** Jardun Euskara Elkartea.



IBAN ARANTZABAL

**Jarioaren komedia eta isiltasun musikatuarena bat eginik: Ramon Agirre eta J. R. Senperena.**

**Good night Bergara esanda hasi behar zuenak, halaxe izan zuen amaiera. Show galanta eta zaindua. Dimitri aurkezteaz bat jakin genuen arratsaldeak emango zuela perla ederrik.**

Ez Dimitriren erantzuna oso konbintzentea, landua eta garatua izan zelako, baina... Ramon Agirrek badaki zer eta nola esan.

Pol-Polen ez zegoen betiko jendea bakarrik, eta horrek esan gurako du zerbait. Beharbada, kultura goiburutzat duten erakunde zein elkarteek ekitaldi gehiago antolatzeko balioko zuen, edo Debagoienean izaten dugun eskaintzaren gainean zer pentsatua izateko. Jardunek Topagunearekin egindako tratuak, oraingoan, fruitu ederra eman zuen. Ikasi beharko dute beste batzuek ere.

Baina Dimitriz jarrai dezagun berbetan. Izugarrizko lan ona iruditu zitzaidan berak egindakoa. Teklak ondo eta behar zenean jotzea eskatzen zaio show honetan, baina gehiago eman zuen. Batzuetan, errusiar roletik irteteraino. Geldi egon beharra jokoaren parte zen, baina musikak eman zion mugitzeko arrazoirik ere. Seinale ona!

Agirrek bere penak, maitasunak, bizitzako pasarteak harilkatzen ditu, modu komikoan kontatu eta kantatuz.

Absurdoaren antzerki honetako ardatza ironia izan zen, iaia esaldiz esaldi egiak eta egiak esateko. Oso ikuskizun urbanoa, betiko gaiek seriotasun handia eska dezaketen arren, umorez landuz: larrua jotzeaz, urtebetetze kantuaz, ingelesaz, trenaz, dentistaz, lagunez. Ezin esan eguneroko bizitzaz berba potoloen bidez jardun zuenik egindako monologoan, baina oso egunerokoak diren hitzak erabili zituen. Ulertzen ez ziren berbak barne.

Carlo Emilio Gadda idazleak, Agirreren antzera, nobelarik behinena egitea izango zuen helburu. Luzaroan izaten zen gogoeta egiten eta esaldiak moldatzen, balizko nobela bukatu nahian; ez zuen lortzen, ordea. Asmo horren aurrean amore ematen zuenean bakarrik argitaratzen zituen liburuak. Bukatu gabeko kontakizunak ziren halabeharrez, Kirmen Uribek gogoratzen digun moduan.

Ramon Agirrek ere badu zer eta nola kontatu, batzuetan, absurdoa zirudiena egunerokoa azaltzeko modurik oparoena baita, eta amaitu gabeko pasarteak izan arren, zatietan datza-eta errealitatearen muina.

IBAN ARANTZABAL

**NIREAUKERA**




**'EL LIBRO DE LOS ABRAZOS'**
**Eduardo Galeano**

**Eduardo Galeanoren *El libro de los abrazos* delako liburua gomendatu gurako nuke. Liburu berezia da, orrialde bakarreko pasarte mordoxkaz osaturik baitago; pasarte horiek Galeanok berak munduko auskalo zein bazterretan bateren bati entzundako gertaeraren bat, edo hiri txiro bateko horma bateko pintada bat, edo norbaitek esandako esaldi esanguratsu bat… izan daitezke, eta liburuari oso izaera aberatsa ematen diote. Irakurleak munduko edertasunarekin nahiz gizakiak sortutako kontraesanekin aurrez aurre topo egiten du, baita bere buruarekin ere. Opari ederra da.** /L.K.



**Oier Sarasua**

Aretxabaletarra, 24 urte. Musikaria da Oier, eta Hiruatx GKEko kide.

**KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal**

**LIBURUA /** Poesia




**TAXI BAT HAMLETENTZAT**
**Aritz Gorrotxategi**
Hiria Argitaletxea
90 orrialde

*Kafkaren labankada* nobelagatik ezagutuko duzue batzuek. Iaz kaleratu zuen nobela hura, baina orain poesia liburu batekin dator donostiar hau. Zenbait sari ere irabazitakoa da, bai narrazioan baita poesian ere: Satarka eta Bordari sariak, esaterako, lehenengoa narrazio lehiaketan, eta bigarrena, poesian.

Poesia liburu honetan, benetako poesiak antzeman daitezke, hezur eta azal eta mamidunak. Ekialdeko kutsua duten poemak.

Isiltasun eta itsutasun kontzeptuak ditu idazgai Aritz Gorrotxategik liburu honetan.

**LIBURUA /** Eleberria




**IZARRETARA BIDEAN ZIHOAN TXAKURRA**
**Henning Mankell**
Juan Mari Mendizabal
206 orrialde

Henning Mankell-en eleberria da *Izarretara bidean zihoan txakurra*. Itzulpena egin du Juan Mari Mendizabalek.

Henning Mankell-en narrazio poetiko sakon eta hunkigarri honek mutiko gazte baten bakardadea kontatzen du; amak etxea utzi eta itsasaldeko herri batera alde egin zuen. Harrezkero, Joel aitarekin bizi da. Bizi den lekutik izarretara bidean zihoan txakurra ikusten du leihoaz bestaldean. Urrutiko itsas herrira zihoan txakurra? Egunen baten, handiagoa denean, hara joan nahiko luke berak ere; izan ere...

**DISKOA /** Pop-rocka




**KALE USAINAK**

**Haragi gordiña**

Autoprodukzioa
14 kantu

*Mal de ojo* izenarekin beharbada ezagunagoa egingo zaizue. Oraindik ere jotzen dute izen horrekin, baina hau proiektu berria da, lan berria.

Aitor Aretxagak esaten duen moduan, "gizarte industriala bukatzen ari den garai honetan, gizarteak lau gai zintzilik utzi dituela iruditzen zitzaigun. Gehienbat kezkatzen gintuzten gaien inguruan, bai antsietatearen, beldurraren, heriotzaren eta harreman faltsuen inguruan, kantuak egiten hasi ginen". Horixe da *Haragi gordiña*. Rock akustiko edo pop-rock tankerako melodiak. Oso gomendagarria.

# Martxoa: 8–15

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## ANTZERKIA

### BERGARA

► ***Ni, ni neu naiz*** antzerki-lana eskainiko du Matxin komikoak gaur gaztetxean, 22:30ean.

► ***Modelo klowntrapublizitarioa*** antzerki-lana jokatuko du Oihulari Klown taldeak bihar, zapatua, Novedades aretoan, 22:30ean.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► ***Nola hitzegin sexualitateaz gure seme-alabekin?*** hitzaldia izango da eguaztenean, zazpi urtera arteko umeen gurasoei zuzenduta. Eskolan, 18:30ean.

► **Batasunak bere bake proposamena aurkezteko hitzaldia** egingo du gaur, Udaletxean, 19:15ean.

► **Pasaiatik Donostiara mendi irteera** antolatu du Arrolak martxoaren 17rako. Arratsaldean, Realaren eta Espanyolen arteko futbol partidua ikustera joango dira. Izena emateko, jo Arrolaren egoitzara, 19:00etatik 20:00etara. Martitzena da mugaeguna.

### ARETXABALETA

► **Batasunak bere bake proposamena aurkezteko hitzaldia** egingo du hilaren 12an, Udaletxe zaharrean, 19:00etan.

► **Mexikoko, Paraguaiko eta Ghanako lagunekin kafe-tertulia** antolatu du Hiruatx taldeak. Eguaztenean izango da, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

► **Euskal Herrian Euskaraz taldeak euskararen ofizialtasuna eskatzeko** prentsaurrekoa egingo du datorren egubakoitzean, hilaren 15ean, Loramendiren egoitzan, 18:30ean.

### ARRASATE

► **Emakumeen Eguna dela-eta, kale agerraldia** deitu du Emakume Kontseiluak gaurko. Seber Altubetik irtengo dira, 19:00etan. 20:00etan, mokadua izango da, udaletxean.

► **Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, hainbat ekintza** antolatu ditu Al-Andalusek. Gaur, 20:00etan, emakumeen aurkako tratu txarren gaineko hitzaldia egingo du Maria Luisa García adituak Al-Andalusen egoitzan, 20:00etan. Bihar, 15:00etan, emakume langileen omenezko bazkaria egingo dute, leku berean.

► **Elkarri erakundeak mahai-ingurua egingo du** martitzenean, hilaren 12an, udaletxean, 19:30ean.

► ***Euskaraz idaztearen abentura*** izeneko hitzaldia egingo du Juan Kruz Igerabide idazleak eguaztenean, hilaren 13an, udaletxeko osoko bilkura aretoan, 18:30ean.

► ***Arrasateko habitat naturalak*** izeneko hitzaldia egingo dute Urtzi Mendizabal eta Rosa Agirrebeña biologoek martxoaren 14an, eguenean, Monterronen, 19:00etan.

### BERGARA

► **Batasuna taldeak konponbide demokratikorako proposamena aurkeztuko du** hilaren 14an, Elementaleko aretoan, 19:00etan.

### ELGETA

► **Deba Garaiko Abeltzainen Elkarteak (Degabel)** batzar orokorra egingo du domekan udaletxean, 11:30ean (lehenengo deialdian) eta 12:00etan (bigarrenean).

### EUSKAL HERRIA

► **Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduak Astigarragako sagardotegi** baten afaria antolatu du martxoaren 23rako. Izena emateko edo argibide gehiagorako, 943 47 26 17 telefonora dei dezakezue.

### ESKORIATZA

► **Emakumearen Eguna dela-eta, kale animazioa eta luncha** izango dira gaur, egubakoitza, herriko plazan. Eguraldi txarra eginez gero, pilotalekuan izango da. 18:00etan.

► ***Beste herrialde batzuetako emakumeen esperientziak*** izeneko hitzaldia egingo dute hainbat adituk eguenean, kultura etxean, 19:00etan.

► **Herriko umeendako udaleku irekietan zuzendari eta begirale** izateko jende bila dabil Udala. Curriculumak, martxoaren 11 baino lehen aurkeztu kultura etxean edo udaletxean.

### OÑATI

► **Lehen Hezkuntzarako ikastekniken gaineko** jardunaldiak gidatuko ditu Hilario Garrudo adituak martxoaren 11tik 14ra bitartean. Aitaamei zuzendutako ekintza da. Errekalde Herri Eskolan izango da, 18:00etan.

► **Mendi Astea antolatu du Aloña Mendi elkarteak** astelehenetik egubakoitzera. Hilaren 12tik 15era, emanaldi eta hitzaldia egingo dituzte, egunero, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

## MUSIKA

### BERGARA

► **Oskorri taldearen kontzertua** izango da bihar, zapatua, pilotalekuan, 22:30ean. Sarrerak honako lekuetan eros ditzakezue: Etxepare Bilintxen, pilotalekuan, Avenidan, Ariznoan, Etxagin, Pol-Polen, Jamen eta Arranon.

► **Mojinos Escozíos eta Mallory** taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 21:30ean.

► **Espezial Guest eta Kokein** taldeek gaztetxean joko dute bihar, 22:30ean.

► **Los Enemigos** taldeak kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean, martxoaren 15ean, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Kean eta Neu** taldeen emanaldia izango da datorren egubakoitzean gaztetxean, 22:30ean.

### ELGETA

► **Ken 7** taldearen kontzertua izango da gaur gaztetxean, 23:00etan.

### OÑATI

► **Oñati Abesbatzak emanaldia egingo du bihar,** zapatua, Santa Ana komentuan, 19:00etako mezan.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Gorputzaren eta adimenaren integraziorako tailerra** antolatu du Sadhana zentroak martxoaren 23rako. Izena emateko, deitu 616 96 57 95 telefonora, martxoaren 15a baino lehenago.

► **Yoga ikastaroa** abiaraziko du Zainduz osasun eta fitness zentroak. Argibideetarako edo izena emateko, deitu 943 71 27 92 telefonora.

### ARRASATE

► **Batukada eta erritmo afrobrasildarren perkusio ikastaroa** antolatu du Iñaki Bruñak. Martxoaren 11n, 18an, 25ean eta apirilaren 8an izango dira eskolak. Interesa izanez gero, jo Gazte Informazio Bulegora. Matrikularen prezioa 21 euro da.

## LEHIAKETAK

### BERGARA

► **Txorimalo Lehiaketa antolatu du Jardunek.** Argibide gehiagorako, jo Jardunen egoitzara edo deitu 943 76 36 61 edo 943 76 08 19 telefono zenbakietara.

► **Mendekoste jaietarako Kartel Lehiaketa** deitu du Udaleko Jai batzordeak. Kultura etxean aurkez ditzakezue lanak. Martxoaren 20a duzue mugaeguna.

► ANTZERKIA

## 'DULCE PUTA': LEHEN PERTSONAN

Prostituzioa, prostituta batek kontatuta. Hori da gaur Oñatiko Santa Ana antzokian ikusteko aukera izango duguna, Carlos Valls-ek idatzi eta Itziar Lazkanok antzeztutako *Dulce Puta* antzerki-lanaren bitartez. Ordu eta erdiko bakarrizketa baten, *Dulce* izeneko prostitutak bere bizitza, Macariorekin zein bizimodu izan duen, prostituten sindikatua sortuko den itxaropena… kontatuko dizkio publikoari. Lanaren asmoa ez da ez mitifikatzea, ez eta moralizatzea ere, baizik eta prostituta baten eta bere bizimoduaren kontakizuna egitea. Garraztasuna eta kritika soziala ere baditu.

**Non:** Santa Anan, Oñatin.
**Noiz:** Gaur, martxoaren 8an.
**Ordua:** 22:30ean.
**Sarrera:** 6 euro;
Gazte Txartelarekin, 4,20.







## THE BELLRAYS JAM ARETOAN

Tina Turner, The Who, Aretha Franklin, MC5 eta horrelako beste hainbaten eraginetatik abiatuta, punk eta *rhythm-and-blues* estiloak bikain uztartu ditu The Bellrays taldeak. Bergarako Jam aretoan izango dira eguenean, 21:00etan, Fivelives taldearekin batera.

## Sarrera doan

LEHIAKETA

### OSKORRI

**Bergarako Pilotalekuan**

Kontzertura joateko **6 SARREREN** irabazleak honak hauek dira:

- **Begoña Payás** (Bergara).
- **Arantzazu Mujika** (Bergara).
- **Ziortza Marzan** (Bergara).
- **Rosarito Arantzeta** (Bergara).
- **Nerea Altzelai** (Bergara).
- **Amets Piedehierro** (Arrasate).

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► ***Animalien aztarnak*** erakusketa antolatu dute. Martxoaren 16ra arte izango duzue ikusteko aukera. Monterronen, astelehenetik zapatura, 18:00etatik 20:00etara.

### BERGARA

► **Javier Juarros** margolari bilbotarrak olio, pastel eta akuarela erakusketa zabaldu du Masterreka kaleko Nahikari tabernan.

### OÑATI

► ***Pangea, bidaia kontinenteen hondora*** erakusketa antolatu du Aloña Mendik. Santa Anan izango da, 19:00etatik 21:00etara, astelehenetik egubakoitzera.

► ***Basoen baso*** erakusketa antolatu du Natura Eskolak. Olakuako egoitzan izango da, apirilaren 28ra arte.

► ***500 urtez frantziskotarrak Arantzazun*** erakusketa zabalik dago, irailaren 9ra arte, Arantzazuko Santutegian. Argibide gehiagorako, honako Internet-gunea bisita dezake zue: *www.arantzazu.org.*

## BIDEOA

### BERGARA

► ***Ciudadano Kane*** filmaren emanaldia izango da domekan, martxoaren 10ean, gaztetxean. 18:00.

► ***Chacal*** filma eskainiko dute eguaztenean gaztetxean, 22:00etan.

### ELGETA

► ***Cómo ser mujer y no morir en el intento*** filma bihar gaztetxean, 17:00etan. Segidan, askaria izango da.

### ESKORIATZA

► **Bideo foruma izango da** datorren egubakoitzean, hilaren 15ean, Ana Larrieta psikologoarekin. Kultura etxean izango da, 18:30ean.

# Zinema

## ARRASATE

### ■ ALAI ZINEMA

***El hijo de la novia***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

### ■ AMAIA ANTZOKIA

***El voto es secreto***
Eguena, zinekluba: 21:30.

## BERGARA

### ■ NOVEDADES

***Ocean's eleven***
Egubakoitza: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

***Mentiras***
Eguena, zinekluba: 20:00.

## OÑATI

### ■ SANTA ANA

***Vidocq***
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 22:30.

***Adarbakar txikiaren kondaira***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***Nueve reinas***
Eguena, zinekluba: 20:00.

## EIBAR

### ■ UNZAGA

***La última profecía***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:00, 22:15.
Martitzena: 19:00, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

### ■ RIALTO

***A mi madre le gustan las mujeres***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

## GASTEIZ

### ■ GURIDI

***Desde el infierno***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Rollerball***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Última sospecha***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Gosford park***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Una mente maravillosa***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00,19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***La última profecía***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

***La ciudad sin límites***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

### ■ MIKELDI ZINEMAK

***Bones***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Monstruos S.A.***
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.

***Atando cabos***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***El señor de los anillos***
Egubakoitza: 19:45, 23:00.
Zapatua: 16:30, 19:45, 23:00.
Domeka: 17:00, 20:30.

***Gosford park***
Egunero: 17:15, 20:00, 22:45.

***Sexy beast***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Vidocq***
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

***Una mente maravillosa***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Amelie***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

### ■ FLORIDA-GURIDI

***Yo soy Sam***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka. 17:00, 20:00, 22:30.

***El hijo de la novia***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

***Mulholland drive***
Egubakoitza eta zapatua: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

***Lantana***
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 01:00.
Domeka: 19:45.

***El señor de los anillos***
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

***Piedras***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 22:30.

***Azken profezia***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

***Moulin rouge***
Egubakoitza eta zapatua: 20:30, 00:00.
Domeka: 20:30.

***Black Hawk derribado***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:00, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:30.

### ■ STER ZINEMAK

***Ocean's eleven***
Egubakoitza: 17:35.
Zapatua eta domeka: 12:25, 15:10, 17:35.

***Yo soy Sam***
Egubakoitza: 17:30, 20:10, 22:50, 01:30.
Zapatua: 12:00, 17:30, 20:10, 22:50, 01:30.
Domeka: 12:00, 17:30, 20:10, 22:50.

***Desde el infierno***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 01:30.
Domeka: 20:00, 22:30.

***Última sospecha***
Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 20:40, 23:10, 01:35.
Domeka: 18:00, 20:40, 23:10.

***Una mente maravillosa***
Egubakoitza: 17:10, 19:45, 22:20, 01:00.
Zapatua: 12:20, 17:10, 19:45, 22:20, 01:00.
Domeka: 12:20, 17:10, 19:45, 22:20.

***La última profecía***
Egubakoitza: 17:45, 20:20, 23:00, 01:35.
Zapatua: 12:05, 17:45, 20:20, 23:00, 01:35.
Domeka: 12:05, 17:45, 20:20, 23:00.

***Black Hawk derribado***
Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 22:00, 00:50.
Domeka: 19:00, 22:00.

***Rollerball***
Egubakoitza: 18:15, 20:40, 22:55, 01:10.
Zapatua: 12:10, 15:55, 18:15, 20:40, 22:55, 01:10.
Domeka: 12:10, 15:55, 18:15, 20:40, 22:55.

***Bones***
Egubakoitza: 17:35, 20:50, 23:10, 01:20.
Zapatua: 12:30, 15:20, 17:35, 20:50, 23:10, 01:20.
Domeka: 12:30, 15:20, 17:35, 20:50, 23:10.

***Monstruos S.A.***
Egubakoitza: 18:30, 20:30, 22:40, 00:40.
Zapatua: 12:15, 16:00, 18:30, 20:30, 22:40, 00:40.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:30, 20:30, 22:40.

***Mi marciano favorito***
Zapatua eta domeka: 12:05, 16:00.

***El inspector Gadget***
Zapatua eta domeka: 12:35, 16:15.

### ■ YELMO CINEPLEX

***Harry Potter***
Egubakoitza: 15:30.
Zapatua eta domeka: 11:45, 15:30.

***En tierra de nadie***
Egubakoitza: 16:10, 18:10, 20:05.
Zapatua eta domeka: 12:05, 16:10, 18:10, 20:05.

***Black Hawk derribado***
Egubakoitza: 15:40, 18:35, 21:35, 00:30.
Zapatua: 11:40, 15:40, 18:35, 21:35, 00:30.
Domeka: 11:40, 16:30, 19:30, 22:20.

***Atando cabos***
Egubakoitza: 15:45, 17:55, 20:00, 22:25, 00:40.
Zapatua: 12:10, 15:45, 17:55, 20:00, 22:25, 00:40.
Domeka: 12:10, 15:45, 17:55, 20:00, 22:25.

***Última sospecha***
Egubakoitza eta zapatua: 20:25, 22:40, 01:00.
Domeka: 20:25, 22:40.

***El señor de los anillos***
Egubakoitza: 15:50, 19:30, 23:30.
Zapatua: 11:30, 15:50, 19:30, 23:30.
Domeka: 11:30, 15:20, 18:40, 21:55.

***Monstruos S.A.***
Egubakoitza: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 00:55.
Zapatua: 12:30, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 00:55.
Domeka: 12:30, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

***Bones***
Egubakoitza: 16:05, 18:20, 20:30, 22:50, 00:50.
Zapatua: 12:10, 16:05, 18:20, 20:30, 22:50, 00:50.
Domeka: 12:10, 16:05, 18:20, 20:30, 22:50.

***Amelie***
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 21:00, 00:15.
Domeka: 18:30, 21:00.

***Desde el infierno***
Egubakoitza: 15:25, 17:45, 20:10, 22:35, 00:55.
Zapatua: 11:55, 15:25, 17:45, 20:10, 22:35, 00:55.
Domeka: 11:55, 15:25, 17:45, 20:10, 22:35.

***Rollerball***
Egubakoitza: 16:00, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.
Zapatua: 12:15, 16:00, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:20, 22:40.

***Daño colateral***
Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 19:55, 22:15, 00:45.
Domeka: 17:40, 19:55, 22:15.

***Ocean's eleven***
Egubakoitza: 15:25, 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.
Zapatua: 12:15, 15:25, 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.
Domeka: 12:15, 15:25, 17:45, 20:05, 22:30.

***13 fantasmas***
Egubakoitza: 16:20, 18:20.
Zapatua eta domeka: 12:30, 16:20, 18:20.

***Mulholland drive***
Egubakoitza: 15:55, 18:45, 21:40, 00:35.
Zapatua: 11:35, 15:55, 18:45, 21:40, 00:35.
Domeka: 11:35, 15:55, 18:45, 21:40.

***Kiriku y la bruja***
Egubakoitza: 16:05.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:05.

***La última profecía***
Egubakoitza: 15:20, 17:40, 20:10, 22:35, 00:55.
Zapatua: 11:35, 15:20, 17:40, 20:10, 22:35, 00:55.
Domeka: 11:35, 15:20, 17:40, 20:10, 22:35.

***Moulin rouge***
Egubakoitza eta zapatua: 22:10, 00:45.
Domeka: 22:10.

***Lantana:* ●●●● / *Moulin Rouge:* ●●●● / *Amelie:* ●●●● / *Ocean's eleven:* ●●● / *El Señor de los Anillos:* ●●● / *Harry Potter:* ●● /**

TXARRA:● ESKASA:●● BALEKOA:●●● ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### UNA MENTE MARAVILLOSA

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Ron Howard.
**AKTOREAK:** Aktoreak: Russell Crowe, Jennifer Connelly, Ed Harris.

U*na mente maravillosa*-k, zortzi Oscar irabazteko izendatua dagoen filmak, John Nash-en istorioa kontatzen digu, unibertsitatera ailegatzen denetik ia 50 urte geroago Ekonomiako Nobel saria eskuratzen duen arte. John-en ahalmen intelektuala ezagutzeaz gain, bere bizitza osoan izango dituen eskizofrenia arazoak ikusiko ditugu. Film bitxia eta interesgarria da eta oso desberdinak diren bi zati ditu. Lehenengoa hutsagoa da eta, batez ere, pertsonaiaren alde xelebreenak azpimarratzen ahalegintzen da. Bigarrena dramatikoki finkatuagoa dago eta interes handiagoa du.

Lehenengo parteak ikuslea zerbait nahas dezake. Bertan, protagonistaren bizitzari buruz hainbat pasarte kontatzen zaizkigu: unibertsitatera heltzen denean beste ikasleekin duen hartu-emana eta, geroago, bere ikasle batekin duen amodio istorioa. Horiei, filmari *thriller* itxura ematen dion Gerra Hotzaren garaiko espioi gertaera bat gehitu beharko diogu. Lehenengo zatia sakabanatuago azaltzen da. Gertakizunek filmari tonu eta kolore barietatea ematen dizkiote, eta dibertigarria baina apur bat hutsa izatea ere badakar. Ez da eskizo-



freniari buruz ezer esaten eta filmaren erdira arte ez zaigu argitzen ikusitakoa protagonistaren ikuspuntua dela eta erakutsi zaigun guztia errealitatearen eta aluzinazio eskizofrenikoen arteko nahasketa dela.

Istorioaren bigarren zatiak, agian konbentzionalagoa, gizaki ospetsuei eskainitako film biografikoekin zerikusi handiagoa du. Bertan ikusiko dugu nola protagonista eta bere emaztea Nash-en gaixotasunaz konturatzen diren. Eta, hortik aurrera, horiek arazoa gainditzeko egindako ahaleginak ikusiko ditugu. Zati horrek Nash-en ikuspuntuari –aluzinazio eta guzti– beste pertsonaien edo errealitatearen ikuspuntua gehitzen dio. Horrela, benetan gertatzen ari dena eta protagonistak ikusten duena kontrajarri egingo dira. Ilusioaren eta errealitatearen arteko norgehiagokaren irudikapen horrek filmaren intentsitatea eta zehaztasun dramatikoa igoaraziko ditu.

ANTONIO ZABALA

# 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Arrasate**. Olarte kalean 66 m²-ko etxebizitza salgai. Jantzita. Bi logela, igogailua, ganbara… Deitu 20:00etatik 22:00etara. 676 67 45 72.

**Eskoriatza**. Etxebizitza berria salgai. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela. 943 71 43 95 edo 656 76 52 20.

**Angiozar**. Etxebizitza salgai, garaje eta guzti. Berogailua ere badu. 943 76 12 01 edo 652 75 55 13.

**Arrasate**. Erdialdean etxebizitza salgai. Hiru logela. 943 79 48 97.

**Eskoriatza**. Etxebizitza garajearekin salgai. 92 m². Hiru gela, bi komun jantzita, garaje bikoitza, ganbara… 605 77 35 14.

**Arrasate**. Zigarrolan etxebizitza salgai. Bi logela eta sukaldea jantzita. 696 73 01 76.

**Arrasate**. San Andresko Bañez doktorea kalean etxebizitza salgai. 943 79 51 88.

**Aretxabaleta**. Belorrietan etxebizitza eta garajea salgai. 655 71 90 86 edo 943 79 98 99.

**Arrasate**. San Andres auzoan hiru logelako etxebizitza salgai. Berogailua. 15 milioi pezeta. 943 79 39 11.

**Arrasate**. Meatzerrekan txaleta salgai. 943 79 70 25.

**Arrasate**. Erdiko Kalen etxebizitza salgai. Merke. 626 71 98 16. 21.00etatik aurrera. Iker.

**Arrasate**. 100 m²-ko etxebizitza salgai. Duplexa egiteko aukera. Ganbara eta bi autorendako garajea. 652 70 97 79. Gauez deitu.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** San Esteban del Puerto kalean etxebizitza ematen da errentan. Hiru gela, berogailua. Eguzkitsua. 943 77 13 02 edo 943 79 84 57.

**Somo** (Kantabria). Garajea duen etxebizitza ematen da erretan. Hondartzatik 50 metrora. 942 33 57 80 edo 630 63 88 93.

**Arrasate**. Erguin auzoan ikasleendako etxebizitza ematen da errentan. 943 79 71 74.

**Arrasate**. Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. 617 49 53 39. Deitu aste barruan 18:30etik 20:30era.

## 105. ETXEAK OSATU

**Donostia.** Logela bat hartuko nuke errentan. Premiazkoa da. 943 77 17 86.

**Eskoriatza**. Logela ematen da errentan. Sukaldea erabiltzeko aukera. 943 71 55 01.

**Bergara**. Etxebizitza konpartitzeko lagun bi behar ditut. 943 76 24 20. Diego.

**Etxebizitza** osatzeko neska bat behar da. 637 95 19 91.

**Arrasate**. Apiriletik aurrera etxe bat osatzeko pertsona bat behar da. 659 01 05 84.

**Arrasate**. Ferrerias kalean etxebizitza salgai. Hiru gela, ganbara, berogailua... Berrituta. 656 79 24 35.

**Bergara**. Etxebizitza salgai. Eguzkitsua. 943 76 52 08.

**Arrasate**. Santa Marinan 70 m²-ko etxebizitza salgai. Berrituta eta jantzita. 943 79 20 98.

**Bergara**. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Jantzita. 616 33 05 46.

## 106. DENETARIK

**Angiozar.** Lursail bi salgai 22 eta 28 urteko intxaurrondoekin. 943 76 12 01 edo 652 75 55 13.


| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **1. ETXEBIZITZAK** | **3. LOKALAK** | **6. MOTORRA** | 803. EMAN | |
| 101. SALDU | 301. SALDU | 601. SALDU | 804. HARTU | |
| 102. EROSI | 302. EROSI | 602. EROSI | 805. TRUKATU | |
| 103. ERRENTAN EMAN | 303. ERRENTAN EMAN | 603. ALOKATU | 806. GALDU | |
| 104. ERRENTAN HARTU | 304. ERRENTAN HARTU | 603. KONPONDU | 807. AURKITU | |
| 105. ETXEAK OSATU | 305. BESTELAKOAK | 604. BESTELAKOAK | 808. BESTELAKOAK | |
| 106. BESTELAKOAK | | | | |
| **2. GARAJEAK** | **4. LANA** | **7. ANIMALIAK** | **9. HARREMANAK** | |
| 201. SALDU | 401. ESKAINTZAK | 701. SALDU | 901. AGURRAK | |
| 202. EROSI | 402. ESKAERAK | 702. EROSI | 902. HARREMANAK | |
| 203. ERRENTAN EMAN | 403. BESTELAKOAK | 703. EMAN | 903. DEIAK | |
| 204. ERRENTAN HARTU | **5. IRAKASKUNTZA** | 704. BESTELAKOAK | 904. BESTELAKOAK | |
| 205. BESTELAKOAK | 501. ESKAINTZAK | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** | |
| | 502. ESKAERAK | 801. SALDU | | |
| | 503. BESTELAKOAK | 802. EROSI | | |


Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**

**Zure iragarkia 60.000 lagunek irakurriko dute!**

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 9 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ARRASATE**

Jatetxe baten astelehenetik egubakoitzera lan egiteko ZERBITZARIA behar da.
943 79 60 10

**LAN ESKAINTZA OÑATIN**

**Laixan Euskara Elkarteak GAZTE SAILERAKO dinamizatzailea behar du.**

Eskaintzen da: egun erdiko dedikazioz sei hilabeteko kontratua eta luzatzeko aukera.

**Baldintzak**

*Ezinbestekoa*
- Batxilergoa edo baliokidea.
- EGA edo baliokidea.

*Baloratuko direnak*
- Herrikoa izatea, bailarakoa izatea
- Arloarekin zerikusia duten ikasketak.

Interesatuok deitu 943 716311 telefonora (arratsaldez) edo bidali curriculumak Laixanera (Errekalde auzoa 25, 2. 20560 Oñati).

**Martxoaren 15a baino lehen.**

Laixan

**LAN ESKAINTZA**

ASEGURU AGENTEA behar da Debagoienerako
607 20 85 57

**ARETXABALETA**

Plater prestatuen komertzio baten sukaldaria behar da
657 79 88 01

# 2/ GARAJEAK

## 201. SALGAI

**Arrasate**. Uriburu kalean, komunitateko lokal itxi baten bi autorendako garajea salgai. 943 79 67 59.

**Arrasate**. Txindoki dorrean (San Andres) garajea salgai. 699 16 11 34. Deitu 21:00etatik aurrera. Joxe Mari.

**OÑATI**

Kiroldegiko tabernan aste bukaeretarako ZERBITZARIA behar da.
943 78 22 10

**ARRASATE**

Emakume bat behar da harategi baten lan egiteko
943 79 14 86

**OÑATI**

Taberna baten ASTE BUKAERETAN LAN EGITEKO ZERBITZARIA behar da.
943 78 00 22

## 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara**. Erdialdean garajea hartuko nuke errentan. 639 03 43 58.

**Oñati**. Garajea hartuko nuke errentan Santamaiña edo Moiua kale inguruan. 943 71 60 66.

**Bergara**, Antzuola edo Oñati inguruan garajea hartuko nuke errentan. Derrigorrez hiru metroko altuera izan behar du. 696 78 05 26.

# 3/ LOKALAK

**PABILIOIA EROSI**

Antzuolan edo Bergaran 100-150 m²ko PABILIOI INDUSTRIALA EROSIKO NUKE.
616 27 79 99

## 302. EROSI

**Pabilioia**. Oñatin edo inguruan lokala erosiko nuke, errepidearen ondoan. 610 38 12 44.

## 303. ERRENTAN EMAN

**ERRENTAN EMAN**

Bergaran lokal komertziala ematen da errentan. 70 m²
943 76 14 66

**Bergara**. Espoloian lokala ematen da errentan. 943 76 16 89.

**Bergara**. Erdialdean jantzita dagoen lokala ematen da errentan edo saldu egiten da. 943 76 40 73.

# 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Arrasate**. Emakumea gertu etxeko lanak egin eta zaharrak zaintzeko. 943 77 04 60. Margari.

**Mutila** gertu edozein lan egiteko. 619 47 63 54.

## 402. ESKAERAK

**Emakumea** behar da goizez bi orduz etxeko lanak egiteko. Komenigarria da autoa izatea. 943 76 27 04. Deitu 20:00etatik aurrera.

# 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. ESKAINTZAK

**Ingeles** eskolak emango nituzke. Maila guztiak. 943 76 31 72. Ainhoa.

**Oñati.** Esperientziadun irakaslea OHOko eskola partikularrak emateko gertu. 843 78 13 44.

**Bergara**. Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emango nituzke. 943 76 15 19 edo 696 54 88 76. Jone.

**Arrasate**. Zuzenbide lizentziaduna Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak emateko gertu. Euskaraz edo gaztelaniaz. 943 79 83 46.

**Bergara**. Enpresaritzako hiru ikaslek estatistika eta algebra linealeko eskola hartuko lukete. 943 76 39 61.

## 502. ESKAERAK

**Bergara**. Batxilergoko bigarren mailako Matematikako eta Kimikako eskola partikularrak hartuko nituzke. 943 76 07 50.

**Arrasate**. Kudeaketa Finantzarioko eskola partikularrak hartuko nituzke. 943 79 70 72. Arantza.

**Bergara**. Turbo Pascal-eko eskola partikularrak hartuko nituzke. 943 76 39 96.

**Arrasate**. 2. DBHko eskola partikularrak hartuko genituzke. 943 79 04 89 (Idurre) edo 943 79 61 44 (Dani).

# 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Peugeot 205** GT salgai. 607 30 74 72.

**Autokarabana** salgai. Ondo dago, eta guztiz jantzita. 943 79 52 85.

**KTM 200** Endura motoa salgai. 1999koa. 609 14 25 25. Fernando.

**BMW** 2.23i autoa salgai. 1985ekoa. Ondo dago. 615 74 10 67 edo 619 50 57 71.

**Golf GTi** 2.0 autoa salgai. SS-AY. Ondo dago. 609 15 87 25.

**Suzuki** Burman 400 motoa salgai. 5.000 Km. 4.230 €. 943 79 14 86.

**Yamaha SR** 250 Special motoa salgai. 699 81 19 10 edo 630 07 07 27.

# 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Solarium** profesionala aire eta aurpegirako barrekin salgai. 652 75 55 13.

**Autoendako** karroa salgai. 652 75 55 13.

**Pertsona** zaharrak etxe barruan ibiltzeko taka-taka eta eustekoa salgai. 652 75 55 13.

**Mercedes** 280 Elegance C serieko autoa salgai. Full quiped. SS-AX. 100.000 Km. 646 92 24 23.

**Nissan Terrano** 2.7 TDi luzea salgai. Aire egokitua, aleaziozko hagunak. 90.000 Km. 609 48 84 85. Igotz.

**Corsa GSI** autoa salgai. 130.000 Km. 999 €. 619 79 15 74.

## 806. GALDU

**Arrasate**. Laubide inguran (Amaia zinemarako bidean) erretratu makina bat galdu nuen. 943 71 44 40.

**Eskoriatza**: Otsailak 25 eta 26 bitartean Goretexeko Ternua markako txamarra bat haizeak eraman zuen balkoitik. Inork topatu badu: Aranburuzala 56-7.esk. (Joxerra Zubizarreta).

**ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA**

Arrasateko Udalak, administrazio orokorreko teknikari bat kontratatu nahi du, aldi batez, bitartekotasun izaeraz, **'Errenta eta Exakzio Teknikari'** lanpostua betetzeko.

**Baldintzak:**
- Zuzenbidea, Ekonomia Zientzia edo Enpresa Zientzietako lizentziatura
- 3. HEren egiaztagiriaren jabe izatea

Interesdunak Arrasateko udaletxera etorri behar dira **martxoaren 22an, goizeko 10:00etan,** proba teoriko-praktikoa eta elkarrizketa egiteko.

**Oinarriak**:
Udaletxean jaso daitezke edo web orrian *(www.arrasate-mondragon.net)*

ARRASATEKO UDALA — **Pertsonal Saila**


NEPAL
**ANNAPURNA**
**8.091 m.**

"AZKEN ZORTZIMILAKOA"

Datorren udaberrian **Alberto Iñurrategi** saiatuko da Anna-purnako gailurra zapaltzen. Zortzimilatik gorako hamalau tontorretatik falta zaion bakarra.



Banoatik egitasmo horren partaide izan zaitezen proposatzen dizugu, Himalaiako lekurik politenetako batetik oinarrizko kanpamendurainoko trekkinga eginez.

**TALDEA:** 6 eta 16 pertsona bitartekoa + gidaria.
**EGUNAK:** Apirilaren 4tik 20ra.
Apirilaren 20tik maiatzaren 6ra.
**PREZIOA:** 1910 €

Honetaz gain, beste bidaia eta trekking batzuk prestatu ditugu Aste Santuari begira. Moroko, Libia, Mauritania, Turkia, Egipto, Iran, Yemen, Senegal, Mali-Burkina Fasso, Etiopia, Damavandeko igoera (5.671 m.), Atlaseko trekkinga...

Talde murriztuetan eta etxeko esperientzia handiko gidariekin murgiltzen gara detaileak zainduz.

*Informazioa eskatu, hemen gaituzu:*

banoa Trekking
Ledesma, 10 bis, 2.- 48001 BILBO
Tfnoa: 94 424 0011 - faxa: 94 423 2039
e-maila: bio@banoa.com



**Hitzaldiak**

loramendi euskera elkartea

*"Emakumeak Euskal Herrian"*
Hizlaria: **ALICIA STÜRTZE**
■ Martxoak 14 (eguena) ■ Arratsaldeko 7etan ■ Udaletxe zaharrean

*"Euskaraz dibertitzeko manerak"*
Hizlariak: **KIKE AMUNARRIZ, ASISKO URMENETA eta ANTTON OLARIAGA**
■ Martxoak 21 (eguena) ■ Arratsaldeko 7etan ■ Udaletxe zaharrean



**CLUB IYOLA**
Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

## AIPAGARRI

### Mikel Etxagibel

MONDRAGOE



Oraingo astean, Komunikazioaren Saria jaso du Donostiako Zinemaldiak Radio Euskadiren eskutik. Mikel Etxagibel mondragoetarra da zinemaldiko gerentea iaztik. Aurretik, ETBko programazio arduradun eta Guggenheimeko zuzendariorde ere izandakoa da Mikel.

### María Jose Gil

MONDRAGOE



Joan zen zapatuan Anoetan jokatu zuten Beteranoen Espainiako txapelketan urrezko domina irabazi zuen Mari Josek, 1.500 metroko frogan. Urrezko domina irabazteaz gain, Espainiako marka berria ere egin zuen: bost minutu eta 55 segunduko marka, hain zuzen ere.

### Ramón Ramila

MONDRAGOE



TVE2 kateko "Jara y Sedal" saiorako erreportaje bat grabatzen aritu da oraingo astean Ramon Ramila. Mondragoetar arrantzale eta ehiztari ezaguna izango da erreportajeko protagonista, eta Leitzarango bailaran grabatu dute arrantzaren gaineko erreportajea.

## JAIOTAKOAK

**Julen Osinaga Fernández.** Bergaran, otsailaren 22an.
**Ainhoa Sánchez Rodríguez.** Bergaran, otsailaren 26an.
**Iker Urbina Arriaran.** Oñatin, otsailaren 26an.
**Edgar Arévalo Ruiz.** Eskoriatzan, otsailaren 26an.
**Alaitz Gamito Bengoa.** Arrasaten, otsailaren 28an.
**Ander Bengoa Palma.** Arrasaten, martxoaren 3an.

## HILDAKOAK

**Luis Urrutia Ibabe.** Arrasaten, otsailaren 27an. 86 urte.
**Francisca Markuleta Anduaga.** Oñatin, otsailaren 28an. 85 urte.
**Jose Aranburu Zumalakarregi.** Bergaran, otsailaren 28an. 66 urte.
**Alberto Salas Durán.** Bergaran, martxoaren 1ean. 51 urte.
**Serafina Arregi Elortza.** Oñatin, martxoaren 2an. 94 urte.
**Jacinto Ugarte Ugarte.** Oñatin, martxoaren 3an. 97 urte.
**Felix Lizarralde Bedia.** Arrasaten, martxoaren 3an. 76 urte.
**Jesus Jauregi Alberdi.** Antzuolan, martxoaren 4an. 63 urte.
**Dolores Benítez Sánchez.** Bergaran, martxoaren 5ean. 85 urte.
**Angel Aranburuzabala Leturiaga.** Arrasaten, 5ean. 79 urte.
**Aureliano Matilla Hernández.** Arrasaten, hilaren 6an. 92 urte.
**Facundo Sarasketa Ojanguren.** Elgetan, martxoaren 6an. 79 urte.
**Nicasio Bilbao Igarza.** Bergaran, martxoaren 6an. 84 urte.



**Edgar Arévalo Ruiz** eskoriatzarra **Rubén** osaba eta **Leire** izebarekin. Otsailaren 26an jaio zen; 2,890 kilo pisatu zuen. **Miguel** eta **Isabel** dira gurasoak, eskoriatzarrak.



**Alaitz Gamito Bengoa** mondragoetarra **Lurdes** ama eta **Basili** amamarekin. Hilaren 28an jaio zen, eta 2,950 kilo pisatu zuen. **Manuel** da aita, mondragoetarra.



**Ander Bengoa Palma** eta **Jaime** aita, mondragoetarrak. Ander martxoaren 3an jaio zen, eta 4,370 kilo pisatu zuen. **Jolanda** da ama, mondragoetarra hura ere.



**Irati Palacios Olamusu** bergararra, **Lorea** ahizpa eta **Jose** aitonarekin. Martxoaren 3an jaio zen, eta 2,430 kilo pisatu zuen. **César** eta **Arantxa** dira gurasoak.

### OROITZAPEN MEZA

**Asunción Larrañaga Orbea**



Gasteizen hil zen.
Bere omenezko meza domekan, martxoaren 10ean, 11:30ean, **Bergara**ko Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### OROITZAPEN MEZA

**Melchora Gantxegi Telleria**

*José Manuel Jausororen alarguna*



Donostian hil zen 2002ko otsailaren 1ean, 88 urte zituela.
Bere aldeko meza, domekan, martxoaren 10ean, 12:30etan **Osintxu**ko elizan

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*




### URTEURRENA

**Jose Mari Alkorta Mujika**



Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 10ean, 11:30ean, **Bergara**ko Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

**Dominica Isas-Isasmendi Arriola**

*Jerónimo Madariagaren alarguna*



Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 10ean, 11:30ean, **Bergara**ko Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

**Jesus Urrestarazu Urkidi**



Lehen urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 9an, 19:00etan, **Oñati**ko Mikel Goiaingeruaren parrokian

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### III. URTEURRENA

**Juan Jose Garmendia**

*"Yanyo"*



Gogorra izango da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko
baina bizitzen garen artean
ez zaitugu, ez, ahaztuko.

ZURE LAGUNAK

## ASTEBUKAERAKO EGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

### ZAPATUA, 9

Zapatua oso egun lainotsua izango dugu, eta tarteka euria ere egingo digu; dena dela, euri txikia egingo du, batik bat, nahiz eta tarteka zaparrada batzuk bota. Giroa hoztu egingo da, tenperaturak behera egingo du. Haizea, ostera, iparraldetik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:**
Ostarteak nagusi.
**Errioxa:** Lainoak eta ostarteak.
**Pirinioak:** Lainoak nagusi.

### DOMEKA, 10

Domekan ere ez du hobera egingo eguraldiak. Estalita izango ditugu zeruak, eta euri txikia egingo du. Giro hotzak jarraituko du; badirudi tenperaturak ez duela aldaketarik izango. Haizea, berriz, aldakor ibiliko da, baina ez da haize bortitzik ibiliko.

**Nafarroako Erribera:**
Egun lainotsua.
**Errioxa:** Lainoak eta ostarteak.
**Pirinioak:** Lainoak eta ostarteak.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

# 8,6º C

ILARGIAREN ALDIAK: MARTXOA

| ilbehera | ilberri | ilgora | ilbete |
|---|---|---|---|
| 6 | 14 | 22 | 28 |

EGUZKIA: MARTXOAREN 10a

**Sortu** 07:29
**Gorde** 19:08

## ZENBAKI SARITUAK

### ONCE

EGUAZTENA 6
**98.075** (006-010 serieak)

MARTITZENA 5
**95.833** (051-055 serieak)

ASTELEHENA 4
**09.337** (041-045 serieak)

DOMEKA 3
**11.237** (044 seriea)

EGUBAKOITZA 1
**10.687** (123 seriea)
Kupoitzarra

EGUENA 28
**83.331** (026-030 serieak)

### BONOLOTOA

EGUAZTENA 6
**04 • 06 • 22**
**25 • 35 • 43**
OSAGARRIA: 29
ITZULKETA: 5

MARTITZENA 5
**10 • 24 • 26**
**35 • 38 • 42**
OSAGARRIA: 09
ITZULKETA: 3

ASTELEHENA 4
**06 • 13 • 24**
**33 • 42 • 46**
OSAGARRIA: 07
ITZULKETA: 0

EGUBAKOITZA 1
**08 • 11 • 12**
**20 • 25 • 27**
OSAGARRIA: 33
ITZULKETA: 8

### LOTERIA PRIMITIBOA

DOMEKA 3
Saritzarra
**08 • 18 • 23**
**28 • 39 • 40**
OSAGARRIA: 02
ITZULKETA: 0

ZAPATUA 2
**05 • 09 • 23**
**26 • 31 • 43**
OSAGARRIA: 13
ITZULKETA: 5

EGUENA 28
**02 • 06 • 17**
**22 • 27 • 30**
OSAGARRIA: 11
ITZULKETA: 9

## URKULUKO URTEGIA

**Gutxi bada ere, behera egin du Urkuluko urtegiaren ur mailak azkeneko astean. Aurreko astean %70,76 zen ur maila. Oraingo astean, berriz, %70,41 da.**

# % 70,4

## ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

**MEZAK**

**Astegunetan**
08:30, 12:00.
**Zapatuetan**
08:30, 12:00, 19:30.
**Domeka eta jaiegunetan**
09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

*Erakunde hauen laguntzaz*

Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza

**Antzuolako Udala**
**Aramaioko Udala**
**Aretxabaletako Udala**
**Arrasateko Udala**
**Bergarako Udala**
**Elgetako Udala**
**Eskoriatzako Udala**
**Leintz Gatzagako Udala**
**Oñatiko Udala**




ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila

## HITZGEZIDUNAK

Luma



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Laborariaren lanbidea / Esneki mota | | Ut! / Zaborra | | Danbor mota |
| | | | | | | | |
| | | | Kausa partikula / Kontso-nantea | | | | |
| Arrantzan jarduten du / Modua | | Izena / Bokala | | | | | |
| | | | Jainko egiptoarra / Kalitate marka | | | Boroa / 1 | |
| Röntgen / Fruta mota | | Jeinu mitologikoa / Nitrogenoa | | | | | |
| | | | | | | 50 / Gauerokoa | |
| Kontso-nantea / Jantzien arduraduna | | 2. eta 21. kontso. / Musika nota | | | Kontso-nantea / Zeuden | | Lehen bokala |
| | | | | | | | |
| Deitura / Musika nota | | | | | | | Mendebaldean, zenak |
| | | Bokala / Aluminioa | | Kontso-nantea / Ba..., baneuka | | Bokala / Errep. gorotza | |
| Musika nota / Pl., zango atala | | | Lan / Bokala | | | | |
| | | | | | | | |

## BILABILA7







## UMOREGIROAN/ Juan Martin Elexpuruk jasoak

Hauetako asko Juan San Martinen *Zirikadak* eta *Eztenkadak* liburuetatik jasoak dira.

**ZERBAIT FALTA**

Satorra-Zarra domekero joaten zan kazara, baiña harek ekarrittako txoririk ez eban iñork ikusten, Guardianeko tabernan-edo izan ezik. Aspaldixan zebillen bere andria pentsamentu okerretan. Edo zuzenetan, nork daki. Zera esaten zotsan gizonari:

- Etxakixat nik kaza aitxakixan zer dabillan hik. Domekero basora eta iñoiz eztok ezer ekartzen. Kazarixon artian sistima zarra dok: "txakurrai azurrak eta andriai gizurrak".

Hurrengo domeka illuntzian, han azaldu zan Satorra-Zarra txori sorta eder batekin, barrez-barrez. Sukaldeko mahai gaiñera jaurti eta:

- Autsonaz, eta esan hurrenguan be ezer ez dotela ekartzen.

- Eta honek euk harrapau dittuk, ala?

- Ez, Mateo Txistuk harrapauko jittunan.

- Hik? Tira-tira, gizurrik ez egik esan. Hik zela harrapauko hittuan ba, eskupetia etxian ahaztuta laga dok eta.

- Anda karajo! Nik bai igarri tirua botatzearakuan esku artian zerbait falta nebala.

**DANA OSPITTALARI**

Lagun batek bestiai:

- Fulanok eukan dana laga jotsak ospittalari.

- Zenbat?

- Zortzi seme-alaba.

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




### Zenbat pilotari profesional daude Debagoienean?

Aurreko aste batean, frontoiei buruzko galdera bat egin genuen. Oraingoan, pilotariak hizpide hartuta gatoz. Garai batean, Arrasate pilotarien sorleku handia izan zen: Mondragonesa, Arriaran anaiak, Bolinaga, Zurdo... Gaur egun, Arrasaten ez da lehen mailako pilotaririk, baina ibarreko beste herri batzuetan badira: Zezeaga, Etxaniz, Elkoro... Edozein modutan, maila guztietako pilotari profesionalak hartuta, zenbat dira Debagoienean?

- 5
- 7
- 9

**Erantzun zuzena:** 9. Bergararrak, Zezeaga, Etxaniz, Oregi I eta Oregi II; antzuolarrak, Berraondo eta Murumendiaraz; elgetarra, Elkoro; eta eskoriatzarrak, Iñurrategi eta Zabala.

## SOLUZIOAK





| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | • | L | • | U | • |
| | | | G | A | Z | T | A |
| | | | • | B | A | I | T |
| • | A | • | G | O | R | K | A |
| E | R | A | • | R | A | • | B |
| • | R | • | L | A | M | I | A |
| B | A | N | A | N | A | • | L |
| • | N | • | B | T | • | L | • |
| A | T | R | E | Z | Z | O | A |
| • | Z | E | L | A | I | A | • |
| F | A | • | A | • | R | • | A |
| • | L | A | • | N | E | K | E |
| B | E | L | A | U | N | A | K |

## ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Balio-aldaketa bizi izaten ari zara. Hori dela eta, jokaera ere aldatu egingo duzu, eta zure inguruan bizi direnak lekuz kanpo ibiliko dira zure jarrera berriekin.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Amodio kontuetan mugimendu handia izango duzu; izan ere, zurekin irten gura duen pertsona bat baino gehiago egongo da. Bikotekide egonkorra baldin baduzu, gerta daiteke zuen hartu-emanean asperraldia delaeta beste norbaitekin egoteko gogoa izatea. Ondorioz, bion artekoak behea jo dezake. Bikotekiderik ez dutenek maitasun-harreman labur baina sakona bizi izan dezakete.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Elkarrizketa eta komunikazioa oso garrantzitsuak izango dira lanean horrenbeste desiratzen zenituen hobekuntzak edukitzeko. Ahalegindu zaitez zure planak inori ez kontatzen; izan ere, zurekin lanean dabilen norbaitek traizionatu egin zaitzake.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Oso aste aproposa negozioak egiteko eta hainbat kontratu sinatzeko. Amodioari dagokionez, bikotekidea duzuenok oso une erromantikoak bizi izango dituzue. Bikotekiderik ez duzuenok pertsona bat ezagutzeko aukera izango duzue.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Zure bizitzako alor guztietan zalantzak izango dituzu. Hori dela eta, bakarrik egoten ahaleginduko zara, zure hutsegiteen eta ezer onik ekarri ez dizuten gauza batzuen gainean meditatzeko eta hausnartzeko.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Agiriak behar bezala dituzu? Ba, argi ibili, haziendaikuskaritza egin diezazukete-eta. Hainbat bidaia egingo dituzu eta oso probetxugarriak izango dira zure lanerako; hori bai, aldez aurretik baldintza guztiak argi eta garbi utzi.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Gaizki ulertuek eta despisteren batek edo bestek hainbat arazo sor diezazukete lanean. Osasun arazoak direla medio, egun batzuk igaro beharko dituzu ohean. Hori dela eta, aurrez ikusita zeneuzkan hitzorduak atzeratu egin beharko dituzu.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Astean barrena egingo duzun guztia ondo irtengo zaizu. Pozez eta energiaz gainezka egongo zara, eta zure inguruko jendea zuregana joango da aholku eta laguntza eske. Saia zaitez gauzak leun-leun esaten.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Zure jokamoldean hainbat aldaketa egin beharko dituzu. Hori dela eta, bakardade aldiak bizi izan beharko dituzu. Eta nahiz eta ez duzun gustuko bakarrik egotea zure izaera irekia dela-eta, behar-beharrezko izango da.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Erantzukizun gutxiago izango dituzu eta aisialdirako denbora luzeagoa. Denbora hori erabiliko duzu zure ingurukoekin berba egiteko eta aurretik zetozen zenbait egoera argitzeko, azkenaldian hotz jokatzen zenbiltzaten-eta.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Ohikoa baino energia txikiagoa izango duzu, baina, hala ere, proiektu garrantzitsu batzuk aurrera eramango dituzu, eta oso pozik egongo zara. Ekonomiari dagokionez, asko gastatzeko duzun joerak hileko soldata erabat desorekatzeko bide emango du.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Egitasmoak aurrera eramateko energia handia izango duzu, ekimenerako gaitasun handia ere. Baina, era berean, asmo horiek ondo irteteko zu baino errealistagoak diren pertsonei kasu egin beharko diezu. Izan ere, euforiak eta kemenak gidatuta, zure egitasmo guztiak hutsaren hurrengo bihur daitezke.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2002ko martxoaren 8a

# Goiena Telebista

Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com**



**ANDONI GOITI**
TEKNIKARIA

## *“Iaz, lan polita izan zen Korrika grabatzea”*

**Andoni Goiti bergararra da. Lehenago, ETBn eta beste hainbat komunikabidetan ibili izan da lanean. Baina, duela bi urtetik hona, GOITBko kamerak bakarrik daramatza sorbalda gainean. Gainera, onartu digunez, horixe bera da gehien gustatzen zaiona, kaleko grabaketa lana.**

**Teknikari batek zein lan egiten du GOITBn?**
Denetarik, baina nik gehienbat albistegietarako irudiak grabatzen ditut. Gero, batzuetan, irudi horiek muntatzen eta bideoak editatzen ibiltzen naiz.

**Editatze digitalera ohitu zara?**
Bai, poliki-poliki horretan ari gara. Ikastaro baten ere parte hartu dut, eta zertxobait behintzat ikasi dut.

**Abantailarik eskaintzen du sistema digitalak?**
Bai, duda barik. Muntaiak egiteko orduan, batez ere, aukera gehiago eskaintzen ditu digitalak. Hainbat efektu sar daitezke, denbora dezente aurrezten da... Abantaila ugari ditu.

**Zein izan dira grabatu dituzun albiste gogorrenak?**
Orain arte, bi izan dira niretako gogorrak. Bata, nire urtebetetze egunean. Orduan, auto istripu larri bat grabatzea egokitu zitzaidan. Gainera, istripu larri hartan gazte bat hil zen, zoritxarrez. Eta bestea, Asier Erizen eta Iñaki Sáezen gorpuak ekarri zituztenean.

**Eta politena?**
Joan den urtean, Korrika gauez grabatzea polita izan zen.

**Zer falta zaio GOITBri?**
Goiena Deba ibaian jarri duten itsasontzi handia da. Orain itsasoratzeko dirua, jendea eta denbora falta zaizkio.

AMAGOIA LASAGABASTER

### ‘Astebete’

Egubakoitzean, 20:30ean

## Harrobiak

Ibarrean, azkenaldian, harrobien inguruko eztabaida piztu da. Oñatiko Gomistegiko harrobia handitu gura dute, baina Arantzazuko auzotarrak ez daude ados. Arrasateri dagokionez, 2003. urtean bi harrobi izango direla aurrez ikusten da, San Josepe itxi egingo dute-eta. Harrobien inguruko erreportajea landuko da egubakoitzean *Astebete* saioan, 20:30etik aurrera, Marijo Deogracias kazetariaren gidaritzapean.

### ‘Iparrorratza’

Martitzenean, 21:00etan

## Iran

Telebistan ikustera ohituta gauden Irango irudiak baino urrunago joango gara, eta Iran beste ikuspegi batetik ezagutzeko aukera eskaintzen dizuegu. Han –Iranen– izan zen Luis Urkia aretxabaletarra, Banoa bidaia agentziaren eskutik.

Mendebaleko bidaiariendako, lurralde guztiz desberdina da Iran. Batetik, islamaren inguruan arnasten duen Iran, eta, bestetik, europarren eraginaren ondorioz, Iran modernoagoa.

### ‘Goibegirada’

Eguaztenean, 20:30ean

## Emakumeak, protagonista

*Goibegirada* saioan emakumeak izango dira berbagai oraingo hilabetean; izan ere, martxoaren 8an, Emakumearen Eguna ospatu dugu, eta telebistan ere egun hori gogoratu gura izan dugu. Egun berezi hori ospatzeko arrazoiak aztertuko ditugu, baita emakumeak urteetan egin dituen aurrerapausoak ere.

Mikel Irizarrekin duzue hitzordua eguaztenean, gaueko zortzi eta erdietatik aurrera.

GOITB Goiena Telebista

## Asteko programazioa/Martxoa 8-14

| EGUBAKOITZA 8 | ZAPATUA 9 | DOMEKA 10 | ASTELEHENA 11 | MARTITZENA 12 | EGUAZTENA 13 | EGUENA 14 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 14:00<br>**Berriak**<br>14:30<br>**Sarrera doan**<br>15:00<br>**Soinuz blai**<br>15:30<br>**Berriak**<br>20:00<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Astebete**<br>Marijo Deogracias kazetariak asteko albiste nagusiak gainbegiratuko ditu.<br>21:00<br>**Soinuz blai**<br>21:30<br>**Berriak**<br>. | 14:00<br>**Gatza eta berakatza**<br>**Iparrorratza**<br>Madagaskar Indiako Ozeanoko santutegia bisitatuko dugu, Espe Rubioren eta Axun Ugarteren eskutik.<br>**Alkatearekin berbetan**<br>Xabier Zubizarreta eguaztenean izan genuen Goiena Telebistan. Arrasateko alkateak esan zituenak berriro entzuteko aukera izango duzu.<br>**Sarrera doan**<br>**Soinuz blai**<br>**Astebete** | 14:00<br>**Gatza eta berakatza**<br>**Iparrorratza**<br>Madagaskar Indiako Ozeanoko santutegia bisitatuko dugu, Espe Rubioren eta Axun Ugarteren eskutik.<br>**Alkatearekin berbetan**<br>Xabier Zubizarreta eguaztenean izan genuen Goiena Telebistan. Arrasateko alkateak esan zituenak berriro entzuteko aukera izango duzu.<br>**Sarrera doan**<br>**Soinuz blai**<br>**Astebete** | 14:00<br>**Berriak**<br>14:30<br>**Astebete**<br>15:00<br>**Soinuz blai**<br>15:30<br>**Berriak**<br>20:00<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Goienasport**<br>Julen Iriondo kazetariak ibarreko kirol taldeen gainbegiratu zabala egingo digu.<br>21:30<br>**Berriak** | 14:00<br>**Berriak**<br>14:30<br>**Goienasport**<br>15:30<br>**Berriak**<br>20:00<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Xeleberri**<br>Iratxe Eguenek eta bere lantaldeko erreportariek barrea eragin nahi digute, albisteak modu xelebrean aurkeztuta.<br>21:00<br>**Iparrorratza**<br>21:30<br>**Berriak** | 14:00<br>**Berriak**<br>14:30<br>**Xeleberri**<br>15:00<br>**Iparrorratza**<br>15:30<br>**Berriak**<br>20:00<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Goibegirada**<br>Mikel Irizarrek zuzentzen duen mahai-inguruan emakumeak izango dira protagonista.<br>21:30<br>**Berriak** | 14:00<br>**Berriak**<br>14:30<br>**Goibegirada**<br>15:30<br>**Berriak**<br>20:00<br>**Berriak**<br>20:30<br>**Sarrera doan**<br>Amagoia Lasagabaster kazetari eta aurkezleak hainbat proposamen egingo dizkigu asteburuari begira.<br>21:00<br>**Soinuz blai**<br>21:30<br>**Berriak**. |

### TELEBEGI/ Maria Agirre

## *Martxoak 8*

**Begira, norberak froga ditzakeen ondorio batzuk kaleratu berri dituzte. Azterketa baten arabera, gizonezkoak emakumezkoak baino askoz ere gehiago azaltzen dira komunikabideetan. Gizonezkoen presentzia gutxienez bikoitza ei da.**

**Ibarreko telebista, GOITB, ikustea baino ez dago hori egiaztatzeko. Ekonomiarekin lotutako albiste gehienetan gizonezkoek egiten dituzte adierazpenak. MCCren barruan ez dago adierazpenak sarri egiten dituela-eta bat-batean burura datorkidan emakumerik. Kargudun ia guztiak "gorbatadunak" dira. Hezkuntzan, berriz, guztiz alderantzizkoa gertatzen da. Arlo horretako albisteetan emakumeen ahotsa ia erabatekoa da.**

**Pentsatzen dut hori guztia gizartearen ispilu izango dela, hau da, gizartean dagoen egituraketa edo ardura banaketa islatzen digula kasu horretan telebistak. Hala ere, espero dut urte batzuk barru, esaterako, emakume ingeniarien iritzia sarriago entzungo dugula.**

### KAMERAAURREAN



***“Onartu gura dugun Egitamu Orokorrean lortuko dugu planifikatzen diren etxe guztietatik %45 babes ofizialekoak izatea”***

**Xabier Zubizarreta/** Arrasateko alkatea
“ALKATEAREKIN BERBETAN” (2002-03-06)



***“180.000 bidaiarik erabili dute herri autobusa, eta, horrela, egin genituen aurreikuspen onenak ere %17 gainditu ditugu”***

**Patricia Marco /** Leintz Garraioak
“BERRIAK” (2002-03-04)




**Zezenak harrapatzerik nahi ez baduzu, inberti ezazu seguru.**
Bolsa Garantizado IV Fondoak kapitala ziurtatzen dizu, eta zure dirua nahi duzunean atera ahal izango duzu. Fondo honek hiru urteko bermea eta honako errendimendua eskaintzen dizkizu: %25eko hasierako etekina gehi zenbait tituluren (Telefónica, Endesa, Acesa, BBVA eta Repsol) balio-handitzerik okerrena (positiboa zein negatiboa). Beraz, Burtsan balore ospetsuenetan inbertitzeko aukera ematen dizu, baina batere zentimorik arriskatu gabe.

**CAJA LABORAL BOLSA GARANTIZADO IV-FIM FONDOAREN EZAUGARRI NAGUSIAK:**

**Epea:** 3 urte (36 hil).
**Ondorengoa bermatzen du:**
- Finkoa: harpidetutako kopurua itzultzea, nahiz eta Burtsak behera egin.
- Aldakorra: % 25eko hasiera etekina gehi zenbait tituluren (Telefónica, Endesa, Acesa, BBVA eta Repsol) balio-handitzerik okerrena (positiboa zein negatiboa).

**Harpidetza-epea:** 2002ko apirilaren 15eko 14:00ak arte.
**Bermearen mugaeguna:** 2005eko apirilaren 15a.
**Errenboltso-komisioa:** % 2, 2002-04-16tik aurrera.
**Gutxieneko harpidetza-kopurua:** 60 euro (9.983 pezeta).
**Fiskaltasuna:** Sortzen diren errendimenduak ondare-irabazitzat hartuko dira.

4. JAULKIPENA
2002ko martxoa

BOLSA FONDOA
%100
BERMEAREKIN

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

*Zurekin elkarlanean*

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@goiena.com
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@goiena.com
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2002ko martxoaren 8a

*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Iker Muruamendiaraz/Pilotaria

**Argitu iezaguzu nongotzat duzun zeure burua: bergarartzat, antzuolartzat ala Bergaran egin den Antzuolako pilotaritzat.**

Azken hori izango da beharbada, baina nik ere ez dakit seguru. Antzuolara gutxitan joaten naiz. Bizimodu gehiena Bergaran egiten dut.

**Azkeneko lau t'erdikoan, kaiolak preso harrapatu zintuen finalerdian.**

Bai, Medina mexikarrak azkena irabazi egin zidan.

**Argi gelditu da mexikarrek, rantxerak kantatzeaz gain, pilotan jokatzen ere badakitela, ez zaizu iruditzen?**

Bai. Ezustean etorri zen Mexikotik, eta ikusten da pilotan ordu asko eman dituen mutila dela. Gabonetatik hona ez da bere izena askorik entzuten, eta ez dakit bere berririk.

**Nik ere ez. Baina zu zeu kaiolan ondo ibiltzea litzateke normalena, etxean frontoi txikia edukita.**

Gertatzen dena da, txiki gelditu zaidala dagoeneko.

**Edo beharbada zuk edukiko duzu indarra soberan...**

Ez, ni ondoen kaiola txikian aritzen naiz. Hortik aurrera, ahal den moduan moldatzen gara. Etxeko kaiola txikia aspaldi egin zuen aitak etxean, eta eskertzekoa da hori etxean edukitzea, eskuak berotzeko ondo etortzen da-eta.

**Pilotarako zaletasuna, beraz, etxetik ere badatorkizu.**

Alde horretatik ezin naiz kexatu. Etxetik gertu dugu Elosu auzunea, eta txikitan beti hara joaten ginen domeka pasa-eta. Han beti zebilen norbait pilotan, eta niri ere gustatu egin zitzaidan gero.

**Astelehena, Bergarako Udal pilotalekua, Atano... pilotaleku handiak dira, baina Elosukoak esanahi berezia izango du zuretako.**

Orain ere askotan igotzen naiz Elosura, goiko haizearekin pilotan egitera. Ordu asko sartu ditut han, eta asko erakutsi dit pilotaleku hark.

**Txikitako mutiko meharrak uste zuen pilotari profesional izatera iritsiko zenik?**

Txikitan, noizbait profesionaletan debutatzeko ilusioarekin hasi ginen pilotan. Ilusioa bete zen, eta gauzak nahiko ondo joan zaizkit.

**Halere, pilotariok ezer gutxi eginda ondo bizitzearen fama duzuen arren, pilotak ere izango du bere alde zatarra.**

Pilotan ez bada lanik egiten, oso erraza da atzean gelditzea. Orain gehiago gainera, partidu gehienak telebistaz ematen dituzte-eta.

**Zeinen gomendioak segitzen dituzu frontoian?**

Momentu txarretan laguntzen zaituen jendearenak dira gomendio onenak, hori hala da.



**"Bigarren mailatik lehen mailara pasatzeko beti edukitzen da esperantza"**

**"Pilotan ez bada lanik egiten, oso erraza da atzean gelditzea"**

**"Ordu asko sartu ditut Elosuko pilotalekuan, eta asko erakutsi dit pilotaleku hark"**

► *Antzuolarra / 24 urte / 2. mailako pilotaria*

## PIPERRAUTSA

*Zinegotzi*

Ez da giro udaletan. Bazirudien zinegotzien segurtasuna aitzakia izango zela hauteskunde kanpaina berotzen hasteko. Baina azken atentatuek erakutsi dute gaia odoltsua ere izango dela.

Alderdi sozialista izan da bereziki kolpatua. Eta ez da harritzeko. Une honetan hark baldintza lezake inork baino gehiago EAEko politikaren bilakaera. Gasteizko gobernuarekin lankidetza eraikitzen badu, gehiengo erabatekoa sortuko da Legebiltzarrean eta Aldundietan. Horrek gobernagarritasuna ekarriko luke eta irudi bat: gehiengo zentrala, abertzale/ez abertzalez osatua, eta alde banatan PP eta Batasuna, muturrekoak. Pentsa daiteke horren kontra doazela azken atentatuak.

Nola ez, Madrilgo gobernuak Mayor Orejak ezarritako erremedioekin jarraitzen du: tinkotasuna eta polizia. Ez du esaten, ordea, noiz arte eutsi beharko den eta zenbat hildako izan daitekeen bitartean.

Ibarretxe lehendakariak, berriz, gizartearen babesa eskatu du zinegotzientzat, eta segurtasuna ere areagotu nahi da. Babesak laguntza morala eman lezake, baina segurtasunik ez. Eta bizkartzainak babestuko du, baina orain atentatuetan pareka jausten dira.

Ez al da zerbait gehiago egiteko ordua? Zerk ekarri zuen lehen su-etena?

MIKEL IRIZAR

Aukera onena zure oporrak segurtasunez disfrutatzeko
**Auto ia berriak ekipamendu osoarekin!**

MÉGANE

**Mégane Berlina Expression 1.6**
16v (110 ZP) **11.719,74 €** / 1.950.000 Pta-tik.

**Mégane Berlina Expression 1.9**
DCI (105 ZP) **13.222,27 €** / 2.200.000 Pta-tik

MECA
**ARRASATE** • San Andres 8 • 943 71 24 72
**BERGARA** • Amillaga 5 • 943 76 40 60